




**Merkataritza bizia
helburu duen ikerketa
aurkeztu du
Sakanako Garapen
Agentziak** / 2-3

**Sunsundeguik
eskaeren handitzeari
erantzuteko 111
langile kontratatuko
ditu martxorako** / 5

**Nafarroako Abiadura
Irristaketa Indoor
Txapelketako 4.
jardunaldia jokatu
da bihar Olaztin** / 17

**Karasatorre eta
Lazkoz Atarrabiako
finalurrekoan
egonen dira,
martxoaren 3an** / 22



Mugimenduak definitzen

Sakanako hainbat ikaslek profesionalekin dantza erresidentzia egin dute / 23

Dibertsifikazioa baserrian

Etzarriko Berruetan behiez aparte ahateak daude / 8





Establezimenduetako jabeak eta udal ordezkariak elkartu ziren joan den osteguneko aurkezpenean.

Merkataritza biziaren alde

Ibarreko dendariak eta ostalariak Sakanako Merkataritzaren Azterketa 2018 ikerketaren emaitzen berri jaso zuten. Sakanako Garapen Agentziako elikadura teknikari Nerea Vianak Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) azterketaren berri eman du

Alfredo Alvaro-Eneida Carreño

SAKANA

Oroitzapenak burura. Oroitzapen gehiago ingurukoekin hizketatzean. Bizitakoak biziberritu. Nostalgia. Pena. Halakoak sentitzen ditugu bezero izan garen gure herriko dendaren, tabernaren edo jatetxeren batek ixten duen bakoitzean. Eta Sakanan hainbat establezimenduk ateak itxi dituzte azken urteetan. Eta herrietako bizitzan nabaritu da.

Zerbitzua ematen digun lokalaren itxiera, hala ere, ez da toki guztietan berdin bizi. Asko dau-

den tokian batek ixtea beste establezimendu batera joateko ohitura sortuko die gabe gelditu diren bezeroei. Baina establezimendu gutxi batzuk dauden herrietan denda edo taberna ixtea drama bat da, herriari bizi handia ematen dion lekuetako bat gabe, jendea ez delako herrian bertan ateratzen eta, gainera, herrian kontsumitzeko ohitura zuenak beste herri batera joan behar duelako. Edo, zuzenean, hirira. Baina establezimendu horiek ere bezero potentziala galdu dezakete, Internet bidezko

erosketak ohiko bihurtu baitira. Jakina, itxiera horien beste ondorioetako bat lanpostuen galera da.

Sakanan dugun tokiko-merkataritza hori dinamizatu eta etorkizuna emateko helburuz, eta horrela herrien eta ibarraren dinamismoa eta lanpostuak sustatzeko, diagnosia egin du Sakanako Garapen Agentziak (SGA). Diagnosia izanda etorkizuneko oinarria jarri nahi dute establezimenduetako ordezkariak eta SGAK.

Aurretik azterketarik egin da?

Sakanako Plan Estrategikoaren (SPE) baitan merkataritza zeharkako lan ildo da. SPE egiterakoan, beste eragileekin bezala, kontraste lana egin zen ibarreko merkatariekin, beharrak zehazteko lan bat. 2016an, herriz herri, galdetegi xume bat egin zen, alkateekin kontrastatu zena, baina oso azalekoa izan zen. Gero horretan ez zen asko sakondu. Egin dugun azterketa bezalakorik ez dago.

Nola sortu da azterketaren ideia?

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) badu merkataritza ehuna hobetzeko, dinamizatzeko helburu hori. Nola egin, nora joan nahi dugun eta nola joan behar dugun horra jakiteko abiapuntua zein den jakin behar dugu. Gaur egungo merkataritzaren argazkia izatea beharrezkoa da. Merkatarien aldetik aspaldiko aldarrikapena zen. 2018rako ekintza gisa zehaztu genuen, eta egin dugu. Horrelakoetan adituak diren Ikei enpresak egin du azterketa, SGAK pitta bat gidatuta. Galdetegiaren diseinua Nafarroako Gobernuak Merkataritza Zerbitzuarekin kontrastatu dugu, hemendik urte batzuetara beste azterketa batzuk egin behar badira, egoera ikusteko eta konparagarria izateko.

Zein da proiektuaren helburua?

Azken helburua litzateke Sakanan merkataritza bizia izatea. Sakandarrek bertako merkataritzan erostearen aldeko apustua egitea. Hori lortzeko, azterketa honetan helburutxo batzuk zehaztu ditugu. Batetik, eskualdeko merkataritza sektorea ezaugarritzea, jakitea zer eskaintza daukagun. Bestetik, Sakanan barna nola dagoen banatuta. Azkenik, dendariak, haien profila, prestakuntza beharrak eta hori guztia pitta bat ezagutzea. Argazki bat ateratzea.

Informazio hori guztia lortzeko nora jo duzue?

Metodologia bi zatitan zatitzen da. Lehenengoa estatistika iturrietatik eta iturri ofizialetatik datuak biltzea izan. Ondoren, Sakanako komertzio guztietatik batzuk aukeratzea eta haiei,

banan-bana, galdetegi zehatza egitea. Guztira ehun inkesta egin ziren. Sakanako herri handienak eta txikiak banatu genituen, errealtatea desberdina delako. Merkatariekin batera kontrastatu genituen galdetegiaren lehen ondorioak, eta haien behar guztiak ere han jaso genituen. Oso garrantzitsua izan da parte-hartzea. Merkatarien aldetik prestutasuna egon da, busti dira. Nafarroako beste eskualde batzuetan gertatzen ari denarekin konparatuz, oso antzekoa da. Azkenean, landa eremuan merkataritzak dituen erronkena arazoa nahiko globala izaten ari da.

Zein ondorio azaleratu dira?

Baditugu esperientzia handiko dendariak, baina, aldi berean, batzuetara arazoetako bat izan da komertzioen erreleboa. Hor zer den azpimarragarria? Nahiz eta erreleborako jendea falta den, behintzat dendariak prest daude errelebo horretan lan egin eta laguntzeko. Nolabaiteko akonpainamendu bat egiteko. Beraz, haiek dira horretan interesa duten lehenengoak. Bestetik, establezimenduen arduradunak emakumezkoak dira. Haien kolektiboaren tamaina nahiko handia da Sakanan. Merkataritza lokalak jabetzan daude orokorrean. Beraz, horrek laguntzen du une batzuetan komertzioa mantentzen, lagungarria da. Baina erreleboa ematean alokairuak begiratu beharko dira, arazo bat izan ez daitezen. Bestetik, Sakanan nahiz eta herriz herri aldaketak dauden, asoziazionismo maila handia dago. Elkarre baten parte diren komertzio horiek nahiko handiak dira. Arazotxoak ikusten dira saltokien teknologia-ekipamenduan. Berrikuntza beharrezkoa izan litzatekeela ikusten da, prestakuntza...

Adina eta teknologia talka?

Hori da. Nafarroako Gobernutik esan ziguten moduan, horretara zehazki bideratutako laguntzak daude.

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com 948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea		Etxe pasiboetarako egokia 5 9000 Isolamendu nukleo indartsua IKD	Beirak lehorrean jarrita STV Aparteko azala koloreztatua Apartment
---	---	---	--	--

Sakanako establezimendu kopurua

Udalerrria	Biztanleria	Saltokiak	% Ostalaritza		% Guztira	% Soldatapeko langileak			
Altsasu	7.471	156	42,86	42	35,29	198	40,99	450	51,02
Étxarri Aranatz	2.456	39	10,71	14	11,76	53	10,97	86	9,75
Irurtzun	2.187	40	10,99	9	7,56	49	10,14	140	15,87
Olazti	1.522	35	9,62	10	8,40	45	9,32	24	2,72
Lakuntza	1.263	22	6,04	6	5,04	28	5,80	20	2,27
Arbizu	1.117	25	6,87	10	8,40	35	7,25	61	6,92
Arakil	952	9	2,47	8	6,72	17	3,52	43	4,88
Uharte-Arakil	834	12	3,30	5	4,20	17	3,52	17	1,93
Urdiain	671	10	2,75	3	2,52	13	2,69	29	3,29
Ergoiena	399	1	0,27	2	1,68	3	0,62	3	0,34
Iturmendi	398	4	1,10	4	3,36	8	1,66	2	0,23
Ziordia	354	3	0,82	2	1,68	5	1,04	7	0,79
Bakaiku	349	2	0,55	2	1,68	4	0,83	0	0,00
Irañeta	176	2	0,55	1	0,84	3	0,62	0	0,00
Arruazu	106	4	1,10	1	0,84	5	1,04	0	0,00
GUZTIRA	20.255	364	100	119	100	483	100	882	100

ITURRIA: NASTAT, NAFARROAKO ESTATISTIKA INSTITUTUA, NAFARROAKO ENPRESEN DIREKTORIOA (DENA) 2018/01/01EAN.I

Datuak

Datuei erreparatuta, Altsasuk ibarreko 10 establezimenduetatik 4 ditu, baina haietan lanean ari dira soldatapeko langileen erdiak. Sakanako 10 establezimenduetatik 1 Étxarri Aranatz eta Irurtzunen daude, nahiz eta azken horretan langileen % 15,87 dauden.

Sakanako gainontzeko herrietan establezimendu portzentajea langileena baino askoz handiagoa da. Hiru udalerrri dira salbuespena: Arakil (% 3,52 eta % 4,88), Arbizu (% 7,25 eta % 6,92) eta Urdiain (% 2,69 eta % 3,29).

Laburrean

- **Establezimenduak** 483.
- **Merkataritzakoak** 364.
- **Ostalaritzakoak** 119.
- **Guztira lanean** 882.
- **Merkataritzakoetan** 1,6.
- **Ostalaritzakoetan** 2,5.

Sektoreka



Sakanako merkataritza eskaintza

Udalerrria	Elikagaiak	Drogeria, farmazia eta tabakoak	Moda, oinetakoak, osagarriak	Etxeko hornidura	Liburu eta paper-dendak	Ibilgailuak eta erregaia	Beste establez batzuk	Ostalaritza eta ostalua	Guztira
Altsasu	37	12	22	17	5	18	45	42	198
Étxarri A.	17	4	2	2	2	3	9	14	53
Irurtzun	13	4	6	3	1	8	5	9	49
Olazti	15	1	-	1	-	11	7	10	45
Lakuntza	12	2	1	-	-	1	6	6	28
Arbizu	10	3	1	-	1	6	4	10	35
Arakil	1		2	-	-	1	5	8	17
Uharte A.	4	2	1	-	-	-	6	4	17
Urdiain	3	1	-	-	-	-	5	4	13
Ergoiena	-	1	-	-	-	-	-	2	3
Iturmendi	1	1	1	-	-	-	1	4	8
Ziordia	-	1	-	-	-	2	-	2	5
Bakaiku	1	1	-	-	-	-	-	2	4
Irañeta	2	-	-	-	-	-	-	1	3
Arruazu	2	-	-	-	-	-	2	1	5
GUZTIRA	118	33	36	23	9	50	88	119	483

ITURRIA: NASTAT, NAFARROAKO ESTATISTIKA INSTITUTUA, NAFARROAKO ENPRESEN DIREKTORIOA (DENA) 2018/01/01EAN.

Sektoreka

Sakana dauden 483 establezimenduetatik 364 merkataritzakoak dira eta 119 (% 24,64) ostalaritzakoak. Azken horren ia tamaina bera dute elikagaiak saltzen dituzten dende (24,43). Kopuruari erreparatuta beste establezimendu batzuk sailekoak bigarrenak dira (% 18,22). Atzetik ibilgailuak eta erregaia saila (% 10,35), moda, oinetakoak eta osagarriak (% 7,45) eta drogeria, farmazia eta tabakoak (% 6,83). Azkenik: etxeko hornidura (% 4,76) eta liburu-denda eta paper-denda (% 1,86).

Lan ildoak zehaztu dira?

Zazpi lan ildo orokor zehaztu dira, pausoak ematen hasteko. Lehenik, gobernantza. Bigarrenik, kontzientziarazioa eta sentsibilizazioa. Azkenean, bezeroak eta gizartearen ez bada sentsibilizatzen merkataritza txikiaren garrantziaz, bai herriko bizitza dinamizatzeko, bai ekonomia-jario bat egoteko eremuan bertan eta lurraldean... Merkatariek hori guztia oso garrantzitsutzat jotzen dute. Haiek lan bat egin dezakete, baina jendeak ere.

Horrekin lotuta, lehiakortasuna. Hau da, komertzioaren lehiakortasuna indartzea. Eman behar duten eskaintza gaur egun erosteko ditugun ohituretara egokitu behar, edo bezeroak eskatzen duen horretara. Berrikuntza ere. Lankidetzak eta elkarkidetzak ere lan ildoak dira. Sakana mailan identitate komun hori indartzea. Azkenik, ekintzailak eta belaunaldien arteko erreleboa litzateke.

Guztia martxan jartzeko epeak? Aurreneko fase batean gaude. Azterketa eta aurkezpenera egin

ditugu. Orain zehazten hasiko gara. Lehentasuna duten horietatik hasi... Baina SGAtik ikusi beharko dugu zeri heldu ahal diogun. Erreleboan eta ekintzailak askoz esperientzia handiagoa duten beste erakunde batzuk daude, Cederna Garalurrek eta horretan laguntzen dute. Udalerri ere honetan parte hartu beharko dute. Nafarroako Gobernuak honetan ere zeresana izanen du.

Zer moduz osteguneko aurkezpenera? Dendariak gonbidatu genituen, Sakanako eta Altsasuk elkar-

teak, udalak, Cederna Garalurrek eta Nafarroako Gobernua. Guk aurkezpenera egin genuen, baina esaten diren gauza asko Nafarroako Gobernuaren Komertzio eta Turismo Zerbitzuak oso lan- duak ditu. Haiek kontatu zuten zenbat lan ildo eta diru-laguntza ateratzen ari diren. Baita 2019an zein aterako diren ere, nolabait erroka horiei erantzuten dietenak.

Zer nolako balorazioa egiten duzue zuek?

Gu pozik gaude. Gauza asko ikusteko aukera izan dugu. Gai-

nera, aspaldiko aldarrikapen honi erantzun diogu, beraz, pozik. Baina hau bakarrik hasiera da. Oinarria jarri da. Gainera, ireki ditugu espazio pare bat dendariak ahotse izan dezaten. Atera dugun beste ondorio bat da, beste sektore batzuetan bezala, informazioa helaraztea oso zaila dela. Komunikazio hori hobetu behar da. Balorazioa, orokorrean, ona. Eta lan egiteko gogoak. Beraz, ongi.

Eta merkatariek?

Esan digutenez, pozik daude. Baina lan handia dago aurrean.



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Piiiiiiiiiiiiiii...to!

Kontu zahar zaharrekin nator, baina, zaharrak berri. Nafarroako ikastetxeetan martxan jarri den Skolae Berdin Bidean Hezkidetza programak sortutako zalapartak, nerabe nintzeneko "Etxarriko pitoa" ekarri dit gogora. Hemerrotekan aurki dezakezue albisteak, 1982ko martxoan, haur baten marrazkiak irakasle bikote baten adierazpen sexuala auzitan jarri zueneko (diziplina espedienteak, greba, isuna, salaketa, etab).

Marraskian neska-mutil bikotea ageri dira, besarkatzen, jantzi-rik. Bilixkorriko ageri den bakarra zakila eta barrabilak dira, "Pitoa" bezala ezagutu zena. Antza, ikasle batek Etxarriko Eskola Nazionaleko Epi eta Mikel maistra-maisua marraztu zituen, gero- ra, beste batek, besarkatze tartean zegoen hutsunea bete zuen. Hezkuntza Ministerioaren delegatuari nahiko buru-hauste eman zion Pitoak eta haxe izan zen bere deliberazioa: "ikasleen sentsibilitatearentzat iraingarria eta kaltegarria beren eskubide, kontzientzia zibiko, moral eta erlijiosoari dagokionean". ("hiriente para la sensibilidad de los alumnos y lesivo a sus derechos, al respeto a su conciencia cívica, moral y religiosa"):

Hertzainak-en "Nola aldatzen diren gauzak... kamarada" kantatzea zaila egiten da batzuetan. "Etxarriko Pitoa"-ren afera duela 37 urte gertatu bazen ere, EGB zegoen garaian, egun antzekoak gertatzen ari dira: Skolae-ren inguruan botatako astakeriak eta desitxuratzeak; eta baita "Hazte oír" autobus ibiltariaren aldarri transfoboa. Ez gara ateratzen "Marmotaren egunetik" -behin eta berriz errepikatzen diren gertaera amaiezina-, ez dago modurik.

Skolae, Chrysallis edo antzeko programen ondorio kaltegarriak salatzen hain fin dabilzen horiek guztiak, ikusi nahiko nituzke balentria berarekin Pornografia Industriaren kontra, manifestak antolatzen, salaketak egiten eta porno-intsumisioa eskatzen. Izan ere, berriki egindako ikerketa baten arabera gazteen %20ak pornografiara jotzen "omen" du sexuaz ikasteko. Bost inporta umeen eta gazteen sexu heziketa pornografiatik egiten bada. Horren aurka jotzeko ezker-eskuin politika behar ote?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE-ek eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrek: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Prekaritatea?

ALTSASUKO BERDINTASUN ZERBITZUA

Aurtengo Martxoaren 8an Munduko Mugimendu Feministak, Sakanakoak barne, greba feminista egitera deitzen gaitu esparru desberdinetan hainbat eskabide aldarrikatzeko, horien artean prekarietatearena.

Honekin lotuta, Emakundek 2018an argitaratutako 'Soldata arrakala euskal autonomia erkidegoan' txostena lortu du egun hauetan, eta gure prekarietateari buruz hitz egin duela iruditu zaidanez, Guaixen konpartitza pentsatu dut. Ez da Sakanako egoeraz ari, baina guretzat erreferentea izan daiteke.

Soldata arrakalak lan-merkatuko diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu, eta horiek, praktikan, emakumeei

eragiten diete nagusiki. Arrakalak adierazten du zer distantzia dagoen batez besteko ordainsarrietan -soldata eta osagarriak-, emakumeen eta gizonen artean. Hauen artean soldata diskriminazioa dago, hau da, lan bat egiterakoan balio erantsia emateari ez dagokiona eta lana egiten duen pertsonaren sexuaren arabera soilik azal daitekeena.

Eta orain, laburturik, zifrak: EAEn % 24,3ko soldata-arrakala zegoen 2015ean; baina datu latzago bat, 2,2 puntu gehitu zen 2009tik, % 22,1ekoa izan baitzen orduan. Soldata-arrakala handiena zerbitzuetan zegoen (% 23), eta gero, industrian (% 19,3), emakume gehiago dauden sektoreetan. Kontratu-motaren arabera, 2015ean kontratu mugagabeak erakusten zuen soldata-arrakalaren ehuneko handiena (% 26,2) eta iraupen mugatuko kontratuak % 8,8.

Adinaren arabera, datuetan ikusten zen arrakala handiagoa 35 urtetik 54ra bitartekoetan zegoela. Eta adin-tarte hori bat dator ugaltzeko adinarekin (35-44 urte) eta mendeko beste pertsona batzuk -gurasoak...- zaintzen hasten diren adinarekin.

Ez gara soilik soldatei buruz hitz egiten ari, ezta enplegua izateko eskubideari buruz ere, prekarietateaz baizik, emakumeen bizitzaren prekarietateaz, soldata arrakalak Gizarte Segurantzako kotizazioetan eta ondoko pentsioetan eragin handia duelako eta oso lotuta dagoelako emakumeen autonomia ekonomikoarekin. Eta, bukatzeko, erakusten duelako zaintza-lanekiko erantzunkidetasun falta, bai eremu publikoan, pribatuan eta gizonen artean.

Agian horrexeagatik hau da Martxoaren 8ko grebaren beste aldarria: bizitzak erdigunean!

GUTUNA

Ez da naturaltasuna, borroka da

GURUTZE ARREGI MUJIK

ALTSASUKO MUGIMENDU FEMINISTAREN IZENEAN

Gure herriko festen artean bereziki matxista izan da Santa Agedakoa. Gizonezkoek protagonismo osoa eskuratzen zuten, eta herriak emandakoarekin eta kintek egindako torten truke lortutako diruarekin ongi pasatzen zuten. Bigarren eguneko kafea hartzea soilik gonbidatzen zituzten emakumezkoak.

85eko 17 kintek intsumisioaren bidea hartu zuten: ezartzen zieten moduan parte hartzeari uko egin zioten. Erabakiak emakumezkoen paperean aldaketa sakona eragin

zuen, mugarrria izan zen. Hortik aurrera atzerapausorik ez: protagonismo gehiago exijitu zuten urtez urte; mugarik gabe disfrutatu nahi zuten, gizonezkoek bezala erabakiak hartuz eta haien ardura berak izanez.

Altsasuko Mugimendu Feministak urteak daramatza gaia aztertzen eta eztabaidatzen. Kintoen festan aldaketa positibo ugari izan direla ikusi ondoren, horiek idazteko ardura hartu genuen. 2014an *Gonbidatuak izatetik protagonistak izatera*, *Kintak*, *Altsasuko festan 1963-2013* liburuan bildu genituen.

Kintoen dantzari buruzko elkarrizketan aldaketa horiek guztiak naturaltasunez eman direla irakurri genuen. Zur eta lur utzi gintuen ez dagoelako errealitatean oinarritua. Emakumeek bizi di-

tuzten desberdintasun egoerak gaintzeari dagokionez, beste leku askotan bezala ezta Altsasan, aldaketak ez dira, inondik inora, naturaltasunez eman ere.

Hori esatea belaualdiz belaualdiz neska askok aurrera eramandako borroka eta lana ukatzea da. Festa honi oso lotuta dagoen orden patriarkala suntsitzeko egindako lana ukatzea da. Horrelako iritzien bidez ez da aitortzen emakumeek Altsasuko Santa Agedan egindako historia. Naturaltasuna deitzen al diogu borrokari?

Gure liburuak dioten bezala: "idatzitako dokumenturik ez badago ez da existitzen, eta idatziz jakitera emanez askoz zailagoa da belaualdiz belaualdiz kintek aurrera eramandako borroka galtzea".

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Sunsundeguin gaur egun 350 langile daude. ARTXIBOA

Sunsundeguiak 111 langile kontratatuko ditu

Soldadoreak, altzari eta lur muntatzaileak, karrozeriako margolariak eta elektrikariak kontratatuko dituzte

ALTSASU

Gaur egun Sunsundegui enpresan egunero bi autobus egiten dituzte eta asmoa da udaberri-rako egunean hiru egitea. Enpresatik jakinarazi digutenez, “estatuko merkatua oso geldidago, baina atzerrian autobus salmentak igo ditugu, Dubain eta Ingalaterran batez ere”. Arabiar herriak, esaterako, SC5 modeloko 143 autobuseko eskaera egin du.

Eskaeren handitze horri erantzuteko enpresak 111 langile kontratatuko ditu. Soldadoreak, altzari eta lur muntatzaileak, karrozeria margolariak eta elektrikariak behar dituzte. Lehen langileak heldu den astean edo bi aste barru lanean egotea nahi dute. Eta gainontzekoak martxo-rako. Enpresatik aitortu digutenez, arlo horietan trebatutako profesionalak topatzeko arazoak dituzte.

Inbertsioa

Sunsundeguiak lehiakortasunean eta eraginkortasunean hobetzeko 5 milioi euro inbertitu zituen joan den urtean. Alde batetik, lantegiaren antolaketa nola hobetzeko obra-ingeniaritza ikerketa egin zen. Horrekin lantegiaren antolaketa hobetu nahi zen. Bestetik, zeuden lantegiak moldatu eta egokitu zituzte. Gainera, pintura eta txaparako pabiloi berriak jaso zituzte, biltegia handitu, aldagela berriak eta langileen autoendako aparkalekua egin zituzte. Azkenik, argindar azpiegitura eta instalazioa egokitu, moldatu eta potentziatu du Sunsundeguiak, segurtasun, jarraipen eta negozio arazoak konponduz, eraginkortasuna hobetuz. Hori guztia, esan bezala, ekoizpen denbora eta prozesuaren eraginkortasunean hobetu eta, hala, produktibitatea handitzeko.

Parlamentuko Garapen Batzordea Sakanara

Sakanako Plan Estrategikoaren berraztertzearen barruan, foru ganberako batzordeak hala eskatuta egingen da bilera ibarrean. Planaren balorazio positiboa eginda ere, parte-hartzaileen ahotsa entzun nahi dute

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) berraztertze prozesua azaro akaberan abiatu zen Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiaren bilerarekin. Ondoren jardunaldi irekiak, elkarrizketak eta Nafarroako Parlamentuko taldeekin bilerak etorri dira. Iker Mante-rola Sakanako Garapen Agentziako (SGA) teknikariak gogorazi duenez, SPE onartu zenean ibarretik Nafarroako Parlamentura jo zen, “asmoen berri emateko. Parlamentuan erabateko adostasuna lortu zuen SPEk. Plana gauzatzeko bide horretan Parlamentua laguntzaile izan zen. Orduan izan zen moduan, orain euren ekarpena eta balorazioa beharrezkoa zela uste genuen”. Parlamentuko taldeekin hainbat bilera egin zituzten. “Balorazio positiboa izan da. Haiek hala eskatuta Parlamentuko Garapen Batzordea Sakanan bilduko da, bertatik bertara ezagutzeko prozesuan parte hartu duten beste eragileak: proiektu estrategikoetan parte hartu duten enpresen ikuspuntua...”

Manterolak argitu zuenez, SPE-ren berrazterketaren azken idatzia, “printzipioz, maiatza baino lehen” izan nahi dute. Hurrengo pausoak aurreratu zituen: “Parlamentuko lantaldearen ekarpe-



Guaixek garapen agentziako Iker Manterola Euskadi Irratian elkarrizketatu zuen.

nak bildu, azken dokumentua egin eta Nafarroako Gobernuari aurkeztu”.

Eskualde bihurtzeaz

Nafarroako Tokiko Administrazio Mapa berriarekin Sakana eskualdea izanen da. Manterolak esan zuenez, “guretako aukera eta erronka da. Hasitako bide horretan beste forma bat emateko, beste baliabide batzuk emateko eta, batez ere, errealtate hori gorpuzteko”. Sakana eskualdea izatea teknikariaren dako “oso tresna interesgarria

izanen da. Zeren horrek irekiko du hausnarketa fase berri bat: nora goaz, zer baliabide behar ditugu, ongizatea gure eskualdean bermatzeko zer baliabide behar ditugun, SPEkoez aparte zein erronka ditugun... Erronka berri pila bat ditugu”.

Eta digitalizazioaren kontura esan zuen: “daukagun enpresa motengatik, etorkizunari aurre egiteko elkarlana eta teknologia uztartu behar ditugu nahi eta nahiez. SPE oinarri izan den elementua, elkarlana, orain teknologia gehitzea”.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Batetik bestia
10:20 Eguneako albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS



Ikasleak Bocanroll-ak banatzen. UTZITAKOA

Altsasu Institutuan aluminioari gerra irabazten hasi dira

Ogitartekoa biltzeko aluminio-papera erabili beharrean bilgarri berrerabilgarri bat erabiltzen hasi dira ikasleak

SAKANA

Altsasu Bigarren Hezkuntzako institutuak hondakinen murrizketa eta kudeaketa egokian eskarmentua du. Ikastetxeko Agenda 21 taldeko kide Ainize Ramila Gabiriak gogorarazi digunez, “hondakinak aspaldi sailkatzen ditugu eta ikastetxean bertan konposta egiten dugu”. Aurreko ikasturteetan Agenda 21 taldeak ogitartekoak biltzen dituzten aluminioari erreparatu zion. “Helburua zen ikasleei ezagutaraztea zilarrezko papera zein kutsakorra den eta beste bilgarri batzuk erabiltzea premiazkoa dela kontzientziatzea”. Izan ere, ikasleek egunero eramaten dituzte ogitartekoak eta gehienek aluminio papera erabiltzen dute bilgarri modura.

Agenda 21 taldeko kideek beste pauso bat ematea erabaki dute ikasturte honetan: “ongi dago aluminioa kutsakorra dela esatea, baina are hobe litzateke alternatiba bat eskaintzea eta ikasleak zilarrezko papera erabiltzeari uztea”. Boc’n’roll enpresaren bilgarriak egokiak zirela iritzita, alternatiba hori eskaini zieten. Ramilak azaldu digunez, “ogitarteko bilgarri hori alde batetik oihala da eta, bestetik, plastifikatuta dago. Behin eta berriro erabili daitezke. Erabili ondoren trapu busti batekin garbitzen da. Merkeagoa da. Eta urteetako iraupena dauka. Guk alternatiba hori eskaini diegu, baina esan diegu haiek euren bide propioa gara deza ketela”.

Bilgarri berrien kopuru handia eskatu zuten, prezio onean lortu zituzten, “gainera, Agenda 21 taldetik eta ikastetxetik diru pixka bat jarri da eta lortu dugu merkatuan 9 eurotan zegoen produktu bat ikasleei 3 eurotan saltzea”. Ramilak azaldu digunez, “eskaintzak ikasleen artean oso harrera ona izan du. 225 ikaslek eskatu dizkigute. 50 ikaslek ere. Gu oso pozik gaude”. Aurreko ikasturteetan egindako kanpainekin egoera ez zela hobetzen ikusita hartu zuten alternatiba eskaintzeko erabakia eta “honekin aurrerapauso handia eman dugu”.

Ekimen gehiago

Altsasu institutuko DBHko 1. mailako talde bakoitzean ingurumen ordezkari pare bat jarri dituzte. “Helburua da ikasleen ideiak biltzea, beti ere, ingurumenaren alde egin ditzakegun ekintzak izan behar dute. Beti baitago zerbait hobetzeko”.



Bocanrol poltsak institutuan.



Usolarraingo atsedean gunean jendea. ARTXIBOA

Oinez Basoa mustuko dute Usolarrainen, bihar

Altsasuko Usolarrainen dagoen Txuspo Poyoren zuhaitz-etxearen ondoan, bihar, 11:30ean

ALTSASU

Iñigo Aritza ikastolak Nafarroa Oinez festa antolatu zuen lastailaren 21ean. Urte eta erdi eman zuten Nafarroako ikastolen festa antolatzen, arrakastatsu eta jendetsua izan zen. Oraindik Nafarroa Oinezek zer esana ematen du. Ospakizunarekin batera Oinez Basoa ekimena egiten da eta joan den urteko lanaren fruitua bihar mustuko dute. Zuhaitz hostozabalak landatzearekin batera gauinaren dako edo saguzaharrendako habia-kutzak jarriko dira Usolarrainen. Espezie bitxitzat jotzen den Bechstein gauinara inguru horretan ikusi da. Haiendako babeslekuak biologo batek adierazitako tokietan jarriko dira, euren ugalketan mesedegarri izan daitezten.

Aldi berean, Txuspo Poyok 2008an jarri zuen zuhaitz etxea Usolarrainen. Oinez Basoa ekimenaren bidez orain hura zaharberritu eta interpretazio kartelak jarriko dira. Bi gelako etxe moduko bat da. Egurrezko eraikin bat da, ainguratzeko eta amarratzeko sistema sortzaileez eta ohiz kanpokoez eutsia. Ez zen iltzerik erabili egitura zuhaitzari eusteko. Zuhaitz etxea instalatu eta hamar urtera, hainbat doikuntza egin behar zaizkio etxea dagoen haritzari, besteak beste zuhaitza inguratzen duten uztaiak egokitu behar dira. Usolarraingoa despeditu ondoren, Iñigo Aritza ikastolako komunitatea Urdiainen bazkaltzera elkartuko da. Horrela ospatuz Nafarroa Oinez despedituko dute.

Oinez Basoa

Nafarroa Oinez fundazioak Oinez Basoa ekimena 2008an jarri zuen martxan. Nafarroako ikastolen festak duen arrasto ekologikoa txikitzeko modua izan nahi du. Oinez Basoak, bai konbentzimenduz bai konpromisoaz, festa ospatzen den herriaren ingurumenaren kalitateari dagokion lekuko bat uzteko helburua du. Oinez Basoa iraunkortasunari lotutako ekimen bat da, festa iraunkorraren eredu izan nahi duena. Orain arte 47.000 zuhaitz landatu dira zazpi basotan: Arbizun, Tafallan, Tuteran, Zangozan, Baztanen, Andosilla-Sartagudan eta Lesakan. Sortutako basoak handitu, aberastu eta gure zeregin hezitzailearentzako baliabide pedagogiko bihurtu dira urtez urte.



Txuspo Poyoren zuhaitz etxea. ARTXIBOA

28 musulari sakandar Iruñean, Euskal Herriko txapelketan


Herrietako sailkatze kanporaketak despedituta, Euskal Herriko Mus Txapelketako finale-ra joanen diren herrialde bakoitzeko musulariak aukeratzeko eguna izanen da biharkoa. Nafarroan 840 bikotek eman zuten izena lehiaketan, 76 Sakanan. Haietako 157 bikote neurtuko dira finalerako txartela eskuratzeko. Finala Lizarran jokatu da martxoaren 16an eta harako txartelaren bila 14 bikote sakan-dar ariko dira.

Finalerako txartelaren bila ariko dira Iruñeko Arrano elkartearen 08:30etik aurrera honako sakandarrak izanen dira: Irurtzango Bizente Etxeberria-Peio Martinez De Eulate eta Kopi Rekalde-Killo Alonso bikoteak sailkatu dira. Uharte Arakilgo Igor Razkin-Vanessa Perez De Albeniz eta Mikel Razkin-Ibai Gorriti, Lakuntzako Jokin Goikoetxea-Jesus Mari Goikoetxea, Arbizuko Fran Balda-Eneko Lazkoz eta Pello Insausti-Txomin Flores, Etxarri Aranazko Jon Ansotegi-Dorita Ansotegi, Rafa Lakuntza-Gorka Garate eta Haitz Begiristain-Urtzi Lopez, Iturmendiko Jose Luis Muñoa-Miren Galartza, Altsasuko Jobita Moro-Saioa Erro eta Jesus Mari Reparaz-Jazinto Bengoetxea eta Ziordiko Alfredo Martin-Andre Perkaz.

Ikas-komunitate diren ikastetxeen topaketa Iturmendin

Komunikas sareak bere bosgarren topaketak egiteko Iturmendiko eskola publikoa aukeratu du. Bihar izanen da, 09:45etik aurrera eta Sakanako komunitate osoari irekia dago. Sare horrek Nafarroan Ikas-komunitate diren ikastetxeak hartzen ditu.

Topaketaren aurreneko zatian sareko kideak barrura begira ariko dira. Atsedendiairen ondoren, berriz, Neil Mercerren *Hitz egitearen hezkuntza garrantzia* artikulua inguruan hizketaldia izanen dute. Antolatzaleek Sakanako hezkuntza komunitate osoa 11:30etik aurrera topaketan parte hartzera gonbidatu dute.



KOTETO EZKURRA

Erremontista ohia



NAFARROAKOA ETA SASOIKOA

Gozatu une bakoitzean gure lurak eskaintzen digun guztiaz. Izan ere, **Nafarroako produktuak** kontsumitzeak on egiten digu denoi.

Eta **sasoikoak** kontsumitzeak propietateak, zaporea eta testura askoz ere freskoagoak izatea ekartzen du.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Ikusi bideoa

E.C.M.-A.A.I. ETXARRI ARANATZ

Nolatan abeltzain lanetan? Zerk bultzatu zaitu aittun-amiñen baserrian lan egitera?

Bakarren bat bagaude, baina ez da oso normala gazteak honetan ibiltzea. Egia da sektorea zahartzen ari dela. Gero eta zaharragoa da eta gazte gutxi daudela, baina gazteak jartzeko apustua ere egin beharra dago.

Noiztik zaude zu han?

18 urterekin sartu nintzen. Ikasten egon naiz ere. Behi batzuk kendu eta pixka bat lasaiago. Badut urte eta erdi sartu naizela, guztiz.

Zerk eraman zaitu baserrian buru belarri ibiltzera?

Gustatu egiten zait. Eta gero... herrian lan egitea, ingurumenarekin harremana izatea... Iruditzen zait oso lan aberasgarria dela.

Bakarrik zabilta zeregin horretan? Amarekin biok gaude. Ama da gehien bat paperen kontua eramaten duena eta baserrian lan egiten duena ni naiz. Amaren laguntzarekin beti.

Behi batzuk kendu dituzue...

Guk, betidanik, esne-behiak eduki ditugu. 2013an esne-behiak kendu genituen eta haragitarako-behi batzuk jarri genituen. Orduan 60 behi edo jezten izanzen genituen eta haragitarako 20 bat jarri genituen. Pixka bat segitzeko, dena ez kentzeko. Aktibitatearekin segitzeko.

Berruetan gaur egun zer daukazue?

Gaur egun haragitarako 30 bat behi eta horiei dagozkien txekorrak. Azkenean, 50 bat buru. Eta abenduan ahateekin hasi ginen. Egun 3.000 ahate dauzkagu. 5.000 ahate hartzeko gaitasuna dugu, baina hasi berriak gara eta 3.000ekin hasi gara.

Nola sortu da aukera hori?

Haragitarako behiak jarri genituenan, esne-behietarako genuen pabiloia edo estarbia hutsik gelditu zen. Alternatiba zein zen? Berriz behiak jartzea? Berriz behiak jartzea ez genuen nahi. Zer jar zitekeen edo zer egin zitekeen begiratzeko hasi ginen eta aukera hori sortu zen. Instalazioek balio zuten. Pixka bat moldatuta, obra handirik egin gabe eta inbertsio handitan sartu gabe, mundu horretan sartu gara. Helburua izan da baserria dibertsifikatzea. Ez dedikatzea gauza bakar batera, aukera gehiago izatea. Gutxi gorabehera izan da ohiko baserriaren bizimoduaren funtzionamendua. Ez garai

"Ahateekin helburua da baserria dibertsifikatzea"

JOAN FLORES ABELTZAINA

Ettxarri Aranazko Berrueta baserria orain arte behiekin lotuta zegoen. Orain ahateak sartu dira. Floresek Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) azaldu du



Joan Flores, 24 urteko baserritarra.

batean bezala, industrializatua go bezala... Galdu gabe berezko zera hori, aukera desberdinekin jokatura.

Zein da zure egitekoa?

Nik ahateak hazi egiten ditut. 20 bat egunekin etortzen dira eta 9 aste edukitzen ditut gutxi gorabehera. Jan eta lo egiten dute. Eguneroko lana da, pixka bat kasu egitea, gaizki daudenak pixka bat baztertu, agotza bota azpian... Janarena automatizatu dago. Ez da berdin 100 eta 3.000 izatea. Azkenean, arazoak handiagoak dira. Maki nahiko jartzen dira. Hil ere, portzentaia bat hiltzen da. Ahatea, orokorrean, nahiko gogorra da. Kanpora ateratzen dira. Euriekin kanpoan atera dira eta ez da ezer pasatzen.

Zerbait ikasi behar izan duzu?

Mantentze erdi mailako eta metal eraikuntzako goi mailako zikloak ikasi nituen. Honekin ez du inolako zerikusirik. Eta honetaz? Galdetuz. Inguruan badaude beste batzuk. Uharte Arakilen ere badaude. Galdetu. Gehien bat zein diren arazoak, zein arrisku dauden... Eta ikusi. Frantzia ere egon nintzen estarbi bat ikusten.

"ESNETAKO ETA HARAGITARAKO BEHIEKIN ANTZEKO, DUELA 20-30 URTEKO PREZIO BERA DAGO"

Hazi ondoren eramaten dituzte...

Bai, berriro eramaten dituzte. Guk Frantziako enpresa baten-dako lan egiten dugu. Gero gizontzera Etxalarrera eta Iturenara eramaten dituzte. Guk Frantziako enpresa horrendako lan egiten dugu eta horrek enpresa eraldatzaileei saltzen dizkie: Iraizotzeko Edalur, Gironako Can Munnar eta Palentziako Selectos de Castilla.

Nola ikusten duzu Sakanako abeltzain gazteen etorkizuna?

Ez da erraza. Artzaintza da, nik uste, pixka bat salbatzen dena. Indar bat dute. Aparte, haiek ere asko elkartzen dira. Artzaintzak badu etorkizuna. Baina, bestela, orokorrean, nahikoa zail ikusten dut. Modu batera bizitzera ohituta gaude eta orain ez dugu nahi... zaila da aldatzea. Erosoen, azkenean, lantegi batean 8 ordu sartzea da. Eta nik ulertzen dut, baina...

Nolakoa da zure egun bat?

Neguan nahiko lasaia. 08:00ak aldera joaten naiz eta bazkaltzera 14:00etan. Eta arratsaldean bueltatxo bat, baina txikia eta lasai. Baina udan belarrak egin, artoa erein. Zeren, azkenean, nekazariak ere bagara. Orduan, lanaldia handitu egiten da. Ez da urte guztia ordutegi berarekin, aldatzen zoaz. Nire erabakia izan da. Ikasi bitartean nire fasea izan dut: hau ez dut nahi, nahia go dut hau egitea. Azkenean hasierakora bueltatu naiz. Baina nik nahi izan dudalako.

Zergatik da garrantzitsua abeltzainak izatea?

Ekosistema bat mantentzeko beharrezkoa da abeltzaintza eta nekazaritza. Hori mantendu beharra dago. Gero etortzen gara eta zeinen polita den dena, zeinen berdea dagoen dena, ez? Oreak bat bilatu beharra dago.

Sektorea nola dago?

Esnetako eta haragitarako behiekin antzeko. Gaur egun guri pagatzen diguten prezioa da orain dela 20-30 urte zegoena. Kostuak igo egin dira. Marjena txikiagoa da. Gaur egun horrela gaude.

Animatuko zenuke jendea horretan aritzera?

Zerotik astea gaur egun ezinezkoa da, nik uste. Dagoen marjen txikiarekin eta halako inbertsioetan sartzeko, hori guztia pagatzeko, ez dakit, oso zaila da. Estarbi asko hutsik gelditzen ari dira eta hortik hastea beste aukera bat da.

Osorik: www.guaixe.eus



Greba prestatzeko bilera. ARTXIBOA

Martxoak 8ko greba feminista prestatzeko deialdiak

Sakanako mugimendu feministak martxoaren 8ko greba deialdia prestatzen segitzen du. Grebak bost ardatz izanen ditu: ikasketak, enplegua, kontsumoa, pentsioak eta zaintza. Horren guztiaren berri emateko grebaren inguruko informazioa emateko Irurtzongo karpan batzarra egingen da gaur, 18:30ean. Etxarri Aranazko plazan, bestalde, informazio guinea jarriko dute larunbatean eta igandean, 11:00etatik 21:00etara.

Bestalde, mugimendu feministatik jakinarazi dute heldu den ostiralean, martxoak 1, auto karabana egingen dela. M8 grebarako bideak berotzen lelopean Irurtzundik eta Ziorditik abiatuko dira auto segizioak. Hitzordua 18:30ean jarri dute 19:00etan abiatzeko. Bi auto ilarak 20:30ean Etxarri elkartuko dira. Azkenik, Irurtzongo Emakumeak buruzko jardunaldien barruan afaria antolatu da martxoaren 9rako. Pikuxarren, Fruitis dendan edo Zabaleta harategian eman daiteke izena martxoaren 4an.

Enpresa-kudeaketari buruzko bi ikastaro

Dohainik dira eta martxoan egingen dira Arbizuko industrialdean dagoen Utzaganen

SAKANA

Aurreko urteetan bezala, Cederna Garalurrek enpresa-kudeaketari buruzko bi ikastaro antolatu ditu. Aurrena, *Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrek betetzeko* da eta martxoaren 12an, asteartean, 10:00etatik 14:00etara egingen da. Bigarrena, berriz, *Nola egin ogasunarekin egin beharreko tramiteak on-line ziurtagiri digitalaren bidez eta ordainagiriak diseinatzeko* da eta martxoaren 20an, asteazkenean, 10:00etatik 12:30era egingen da. Ikastaroetara Excell programa duen eta Mac ez den ordenagailu eramangarria eramatea ezinbestekoa da.

Lantegi horien osagarri gisa, Cederna Garalurrek talde-tutorretza pertsonalizatuak programatu ditu garagarrean. Horietan, prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten pertsonak beren negozioei buruzko kontu partikularrak planteatu ahal izanen dizkiote kudeaketa aditua den elkarteko teknikariari, hark afera horiek konpon ditzan.

Garalurren antolatutako ikastaroei buruzko informazioarako edota izena emateko: 619 328 264 telefonoa edo sakana.admon@cederna.es e-posta helbidea.



Aizpea euskara taldean antolatutako familia-mintzakide irteera bateko parte-hartzaileak. ARTXIBOA

Euskalgintzarendako diru-laguntza deialdia

Eskabideak egiteko epea martxoaren 29an despedituko da. Argibideak nahi dituenak 948 464 840 telefonora hots egin edo euskara1@sakana-mank.eus e-posta helbidera idatzi beharko du

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak ibarreko euskalgintzari eta euskara sustatzeko jardueri diruz laguntzeko deialdia egin berri du. Diru-laguntza horren bidez Mank-ek euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko helburua duten egitasmoak eta euskararekiko jarrera hobetzekoak dutenak lagunduko ditu. Aurten egingen diren ekintza horietarako 5.000 euroko diru-poltsa aurreikusi du Mank-ek.

Onartutako deialdiaren barruan honako helburua duten jarduerak lagunduko dira: eza-gutzatik erabilerarako jauzia egitea helburu duten egitasmoak; euskara ez dakiten euskal he-

rritarrek euskarara hurbiltzeko helburua dutenak; euskararen ondarea jaso, gorde edota hedatzea helburu duten egitasmoak; euskararen alderdi desberdinak aztertzea helburu duten jardunaldiak; euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteak omentzeko egitasmoak; euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu dutenak; euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak; euskarazko kultur sormena bultzatzea helburu duten egitasmoak (hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, antzerki-emanaldiak eta lantegiak); etorkinen artean euskararen erabi-

lera sustatzea helburu duten egitasmoak eta euskarazko jostailu, joko eta denbora-pasak.

Deialditik kanpo geldituko dira, batetik, euskararen erabilerara sustatzea helburu espezifiko eta nabarmena ez duten egitasmoak. Bestetik, Mank-en beste edozein esparrutan diru-laguntza jaso dezaketen horiek, ezta Euskara Zerbitzuaren jarduerara esparruaren barruan ez daudenak ere. Azkenik, gazteen dako aisialdi jardunaldiak ere deialditik kanpo geldituko dira. Diru-laguntza eskatzen den jarduerara bakoitzek gehienez 1.000 euroko aurrekontua izan beharko du. Eskatzaileko, gehienez ere, hiru egin daitezke.

OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDALA

HIRIGINTZA JARDUKETA PLAN BEREZIA HASIERA BATEZ ONARTUA

Olazti/Olazagutiako Udalak, 2019ko urtarrilaren 31ko batzarrean, Hirigintza Jarduketa Plan Berezia onartu zuen, Olazti/Olazagutiako AA-13n, Inmobiliaria Olarena 3, SLk bultzaturik.

Hirigintza Jarduketa Plan Berezia jendaurrean egonen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hilabete epean, eta jendaurreko tramite honen berri eman beharko da iragarki oholean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean baita Nafarroako Foru Erkidegoan argitaratzen diren egunkarietan ere.

Hasiera bateko onespeneraren akordioa behin betiko izatera pasako da erreklamazioik, oharrik edo iruzkinik aurkeztu ezean. Horrelako egoeraren berri eta behin betiko testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

Olazti/Olazaguti, 2019ko otsailaren 19a.
Alkateak, Mikel Azkargorta Boal.



Txooooox!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE
txotx denboraldia zabalik



ODERITZ

948 604 571 | 680 652 183

kaxeta

liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak



Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477

Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

sorgiñak



LAKUNTZA

948 576 357



Tafallan sakandar mordoak elkartu zen larunbatean.

Sakandarrak Tafallan, tren sozialaren alde

AHTren kontrako hurrengo mobilizazioa Altsasun izanen da martxoaren 30ean, larunbatean

SAKANA

Erdialdea Trenaren Alde plataformak deituta 1.500 bat pertsonen kontzentrazioa egin zuten Tafallako tren geltoki parean larunbatean. *Tren sozialaren alde! AHTrik ez!* lelopean egin zen bilkuran atxikimendua azaldu zioten Sakanako 14 udaletako ordezkariak, baita Altsasuko zinegotzi batzuek ere. Kontzentrazioari babesa eman zioten udal eta erakundeetako ordezkariak manifestazioaren leloa zuten hitz handiak eutsi behar izan zituzten ekitaldian.

Deitzaileek gaitzatu zuten, "herritarren tren bidezko garraioari konponbide erraza eta merkea eman dakioke". Horretarako, gaur egungo trenbidea hobetzea eta harretara baliabideak bideratzearekin nahikoa dela azpimarratu zuten. Abiadura Handiko Trenean dirutza inbertitzen den bitartean jendeak

gehien erabiltzen duen ohiko trenean ez dela inbertsiorik eginen gaitzatu zuten.

Sakana Trenaren Alde, AHTrik ez! plataformako ordezkari batek kontzentrazioaren akaberan hitza hartu zuen. Sakandarrak esan zuenez, "ezin dugu ahaztu suntsiketa proiektu hau, lurralde eta mugez gaindi, komuna dela. Beraz, herriak, eskualdeak, elkarteak eta kolektiboak elkarrekin beharra dugu, interes orokorrean pentsatzen ez eta gutxi batzuen alde egiten duten gobernuen aurrean borroka frontea eratuz".

Aldi berean, AHTren kontrako eta tren sozialaren aldeko hurrengo bi mobilizazioetan parte hartzeko deia egin zuen. Aurrea martxoaren 30ean izanen da Altsasun. Eta hurrena maiatzaren 18an Gasteizen. Bai bata bai bestea manifestazioak izanen dira.

Dementzia zaintzaileak zaintzeko ikastaroa

Apirilak 1ean, 3an, 8an eta 10ean izanen da, 17:00etatik 19:00etara, Altsasuko Osasun Etxean

ALTSASU

Nafarroako Paziente Eskolak "Besteak zaintzea, norbera zaintzea" ikastaroa antolatu du udaberriarako Altsasun. Ikastaro hori Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten pertsonen zaintzaileei zuzenduta dago. Ikastaroarekin lortu nahi dena da parte hartzaileek gaitasun handiagoak garatzea euren burua eta besteak zaintzeko. Ikastaroan parte-hartzaileek euren esperientziak trukatu, informazioa zabaldu, eztabaidatu, kasuak aztertu, ariketak eginen dituzte.

Ikastaroa bata bestearen osagarri diren lau saioz osatuta dago. Aurreneko saioan beste norbait zaintzeaz ariko dira. Hurrengoan dementzien narri-dura kognitiboa aztertuko da. Hirugarren saioan dementziei lotutako jokabide-sintomak landuko dituzte. Atzeneko saioan besteak zaintzearekin batera nork bere burua zaintzearen inguruan ariko dira. Nafarroako Paziente Eskolak ikastaroaren antolakuntzan Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen, Osasun Etxearen eta Josefina Arregui klinika psikogeriatrikoaren laguntza jaso du. Dagoeneko izena eman daiteke 948 423 450 telefonora hots eginez.



Joan den urteko landaketa. ARTXIBOA

Arbizuko zuhaitzaren eguna San Juanen ospatuko da etzi

Igandeko zuhaitzaren eguneko hitzordua 12:00etan plazan jarri dute eta handik San Juan ermitara joanen dira. Eraikina eta autobia arteko espazioan zuhaitzak landatuko dituzte. Hortaz 2018an jaiotakoen senideak arduratuko dira. Lanak egin ondoren bildutako guztien-dako aatea izanen da. Igandera bitartean, udaletxean, zuhaitzei buruzko erakusketa dago.

Atabo Altsasu SLko kudeatzaile izateko deialdia zabalik

Altsasuko Udalak Atabo Altsasu SL enpresako kudeatzaile postua aukeratzeko oposizioa deialdia egin du. Interesa dutenek euren proposamenak astearteaz geroztik aurkez ditzakete udaletxean, 20 egun daude. Kargua lortzen duen pertsonak lehen multzoko lan kategoria lanpostua izanen du, lanaldi osokoa.

Sortuk Nafarroako Gobernuari tortura ikertzeko eskatu dio

Iturmendiko plazan 149 zifra eta plus ikurra idatzita. Eta haien barruan beste horren beste sakandarren izenak idatzita. Horrela bukatu zuen plazak Sortuk deituta tortura salatzeke egin-dako ekitaldiaren ondoren. Sakanako Sortuko koordinatzaile Unai Razkinek azaldu digunez, "tortura ikustarazi nahi ez duten errealitate bat da. Modu kontziente batean ilunpean izan dutelako. Gure asmoa da tortura kasu horiek guztiak argitara ateratzea". Razkinek gaineratu zuenez, gizarteak tortura kasuen berri izatea beharrezkoa da: "aitortza ematea, ez errepikatzeke bermeak egotea berriro gertatu ez daitezen".

Sakanan 149 tortura kasu dituzte erregistratuta. "Kasu asko dira". Inpunitatearekin bukatzeke eskatu zuen Sortuko kideak Bestetik, Nafarroako Gobernuari "torturaren errealitatea iker-tzeko lehenbailehen ikerketa martxan jarri dezala, bai Sakanakoa, bai Nafarroakoa".

Alonso Ahal Duguren Altsasuko alkate-gaia izanen da

Nafarroako Ahal Duguk larunbatean Nafarroako 14 herrieta-ko bere alkategaiak aurkeztu zituen, horien artean Altsasukoa. Moreen zerrenda burua Virginia Alonso Aparicio izanen da. Gaur egun, Alonso Goazen Altsasuko zinegotzi da. Aldi berean, altsasuarra Nafarroako Ahal Duguko Hiritar Kontseiluko kide eta udal arloko idazkaria da.

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

MAPFRE

La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

ASI SON LOS PRECIOS DEL SEGURO DE AUTOS: HORRELAKOAK DIRA AUTO ASEGURAREN PREZIOAK

GUARANTIA DE POR VIDA BETIKO BERMIA DE LA REPARACION EFECTIVA

Txalaparta

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988

ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153



Urdiaindarra Guaixe hilabetekariari begira.

Guaixeren hemeroteka ibiltariak Ziordira salto egingen du

Astelehenetik martxoaren 7ra liburutegian izanen da nahi beste ttutukatzeko, 16:30etik 20:30era

ZIORDIA

Guaixe hilabetekaria sortu zen tokitik metro pare batera, Urdiaingo liburutegian, bi astez erakusketa berezia dago, gaur du azken eguna. Eta Burundatik atera gabe, Urdiaindik Ziordira egingen du salto eta astelehenean herriko liburutegian izanen da ikusgai, bi astez arratsalde. Guaixek abenduan 25 urte beteko ditu eta erakusketa ibiltaria prestatu du Guaixe hilabetekariaren (1994-2003) eta Oixe aste-kariaren (2001-2003) aleak biltzen dituen. Propio prestatutako stand batean dago hemeroteka. Guaixe fundaziotik hura bisitatzera joateko gonbidapena egin zaizue, orriak pasaz nor bere burua, edo gertukoena, opatzeko.

Eta ale zaharren batean zu edo bakarren bat opatu baduzu harekin argazkia egitea eta sare sozialetan argazkia #batzengaituena edota #Guaixe25 traolak

erabiliz partekatzea proposatzen dizugu. Eta ez baduzu inor opatu, photocalla egiteko markoa ere badago standean eta nahi duenak harekin argazkia egin eta partekatzeko aukera du.

Standean dauden Guaixe eta Oixe ale zaharrak herriz herri ibiliko direnez, bisitariei aleak han uztea eskatu diegu. Haietako aleren bat nahi bazenu, admin@guaixe.eus e-posta helbidera eskaera idaztea besterik ez duzu. Artxiboan begiratu eta baldin badago, aipatutako alea oparituko dio fundazioak. Trukean alearekin agertzen den bere argazkia sare sozialen batean partekatzea eskertuko genioke.

Erakusketa Ziordian egon ondoren, udaberriari harrera Altsasuko liburutegian egingen dio, han martxoaren 11tik 29ra izanen baita. Handik, Burunda utzita, Arbizuko liburutegira pasako da, apirilaren 1etik 17ra.

Zumalakarregi berria ezagutarazi du udalak

Zorua berritzeko lanek erabat itxuraldatuko dute: hego aldean pergola jarriko da zuhaitz ilara bat kenduta, jolas parkea hego mendebaldera aldatuko da eta plazako zuhaitzak aldatuko dira. Azarorako lanak despedituta egonen dira

ALTSASU

Altsasuko Udalak Zumalakarregi plaza berritu ondoren nolakoa izanen den jakinarazi du. Aurten lanak despeditu ondoren, plaza guztia altura berean egonen da, egun hara sartzeko dagoen koxka kenduz eta, horrela, joan-etorriak erraztuz. Gaur egun plazako zorua hondatuta egoteko arrazoietakoa bat dauden zuhaitzen zainak dira. Egungo platanu arruntaren ordez (Platanus x hispanica edo Platanus x acerifolia) indi-gaztainak (Aesculus hippocastanum) jarriko dira.

Haurrendako jolas parkea diagonalen plazaren punta batetik bestera lekualdatuko da. 193 metro karratuko azalera hartuko du. Mugikortasun urria du tenendako eta adin desberdinetako haurrendako hainbat jolas jarriko dira. Plazako izkinako haurrendako txokoa apaintzeko berdegunea egingen da, aldame-neko kaleekin mugarena egingen duena, malda izanen baitu.

Plazaren erdialdea, gaur egun bezala, erabilera librerako gedituko da. Zumalakarregi plazaren iparraldean, ekialdean eta hegoaldean aulkiak jarriko dira, eta han esertzen direnak erdialdean egiten dena ikusteko aukera izanen dute. Plazaren hegoaldeko muga egurrezko



Lanen ondoren Zumalakarregi plazak izanen duen itxura . ALTSASUKO UDALA

pergola jarriko du, han jarriko diren aulkiei itzala emateko.

Lanak


Altsasuko Bakea kaleko zati baten eta Amaia kaleko sareak eta zorua berritzeko lanekin batera egingen dira Zumalakarregi plazakoak. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, lan horiek maiatza edo garagarri aldera hasia aurreikusten dute. Plazakoak azarorako despedituta beharko lukete. Kaleetako lanak despeditzea luzeago joko du. Plaza itxuraldatzeko Altsa-

suko Udalak 503.700,75 euro bideratuko ditu. Diru hori hiru tokietatik aterako da: udalaren diruzaintzako gerakinetik 315.702 euro, Nafarroako Gobernuak emandako Erabilera Askeko Diru-sailetik 170.000 euro eta udalaren joan den urteko aurrekontuetan jasotako 17.998,75 euro.

Lanok Isidoro Melero eta Ermita kalean egiten ari direnei lekukoa hartuko diete. Maiatzarako despedituko dira. Heldu den astean Isidoro Melero kaleko Zelai eta Zelandi arteko kale zatian hasiko dira lanean.

Arbizuko kiroldegiko taberna hartzeko deialdia

Arbizuko Udalak bando bidez jakinarazi du kiroldegiko taberna kudeatzeko enkantea egingen duela. Taberna hori eramaten interesa dutenek enkanteko oinarriak udaletxean dituzte ikusgai, astegunetan 09:30etik 14:30era. Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, kiroldegiko tabernako kudeaketa emateko enkantea martxoaren 15ean egingen da.



kattuka
haur eskola
Arbizu eta Lakuntzako udalak
INFO+
948 567 009
www.kattuka.com
info@kattuka.com

2017, 2018 eta 2019an jaiotako haurrendako haur eskola publikoa

Aurrematrikula
Martxoak 1-15
Matrikula
Maiatzak 20-24

ATE IREKIAK
Otsailak 26
17:00etan

Haur bakoitzaren erritmoa eta banakotasuna aintzat hartzen dituen proiektu berritzailea

Haurraren garapenaren arabera espazioak eta materialak

Familien beharren arabera sarrera eta irteera ordutegi libreak



Berreskuratutako Ziordiko ihoteko hainbat une.

Ziordiko herri-ihotea biziberritu zuten larunbatean

Zomorroak, Pezkinak eta Artzainak herriaz jabetu ziren. Akabera, agotzez betetako popina ajustiziatu zuten

ZIORDIA

Ziordiko kultur batzordeak bultzatuta herri ihoteak berreskuratutako zituzten eta hura zuzenean ikusteko jende asko hurbildu zen. Zomorroak, Pezkinak eta Artzainak kalera atera ziren. Pezkinak nagusi ziren, agian, jantzia errazena zelako: apaindutako zakua. Pertz batean errautsa eramaten zuten. Hala ere, Zomorroak eta Artzainak ere izan ziren. Zomorroak eza-gutzeko errazak ziren zuriz jantzita zihozenak zirelako. Aurpegia zapi batekin edo maskara batekin estalita zuten. Ar-

tzainak ere identifikagarriak ziren, mahoizko prakak eta koadradun atorra. Aurpegia zikinduta zuten.

Etxajuaren ez tandarekin hasi zen kalejira trikiti eta panderoaren doinupean. Pezkinak errautsak bota zituzten, haizea lagun zutela. Txanoak eraman zituen ere. Goiko iturrian, ermitaren ondoan eta azkenik plazan geldialdi bana egin zuten. Hiruetan Altsasuko zortzikoaren moldaketa dantzatu zuten eta auzatea eskaini zuten. Popinari su eman zioten eta mozorroek inguruan dantzatu zuten.



Olaztikoak Anhaizen. ADELAIDA

Ihotekoak Anhausetik indarberriturik bueltatu ziren

Behe Nafarroako herrikoei iaz egindako bisita bueltatu diete olaztiarrek. M2rako dena prestatzen ari dira

OLATZAGUTIA

Behe Nafarroako Anhausetako Basalduak egon ziren joan den urteko ihoteetan. Azken horiei olaztiarrek otsaileko bigarren asteburuan bueltatu zieten bisita. Anhausetarrek oroitzapen ederra utzi zuten Olatzagutian. Adelaida Kintanak gogorarazi digunez, “asko disfrutatu genuen haien joareen dunbadekin, haien joan-etorriekin dantzatzeko bitartean eta haien maskara beldurgarri, ikaragarri, adardunekin”. Bisita otsailaren 9an eta 10ean bueltatu zieten. Larunbatean, bazkaldu ondoren, Zirtzilak, olaztiarrek lagun, baserriz baserriz joan ziren, eta musika ere bazeramaten. “Baserrietan jakiak ematen zizkiguten. 19:00etan itzuli ginen herrira zamarroak jantzi behar genituen eta”. Ihote segizioa 20:00etan abiatu zen: “dunbak erritmo batean zebiltzan, suziri eta zuzien artean, gaueko iluntasunean argigarri. Atzetik Zamarraundiak eta Zamartxikiak baserrietako eta etxeetako jendea izutzen, Neskak eta Mari Arroka segika”. Larunbatean jasotako jakiekin igandean “izugarritzko paellada egin zuten”. Anhausetik “indarberriturik” bueltatu ziren, martxoaren 2ko herri-ihotea buruan dutela.



Urdiaingo bi taldeetako kideak, zazpigarren urtez aritu dira. UTZITAKOA



Altsasuko Legomastodontes taldeak estreinako edizioa zuen. UTZITAKOA

Iruñeko robotika lehiaketan hiru talde aritu ziren

Firts Lego Leagueren herrialdeko kanporaketan Urdiaingo bi talde eta Altsasuko bat aritu ziren

URDIAIN / ALTSASU

Iruñeko Planetarioa igandean Firts Lego Leagueren parte hartzen zuten taldeek espazioa zuten gaitzat. Espazioan erabilgarria izan zitekeen gai bat garatu, probatu eta ondorioak atera behar zituzten. Zientzia proiektua osatu zuten horrela. Urdiaingo Elektrodinamiks taldeak (15 urteko 5 kide) espazioan landareak haztea posible egingen lukeen makina baten ideia eraman zuten. Espazioan grabitaterik ez dagoenez, lurrean bezala egon eta hazteko gaitasuna ematen die makinak landareei behin eta berriz bueltak emanez. Lan onenaren saria jaso zuten.

Urdiaingo beste taldeak, Jentiltroniks (12-13 urteko 6 kide), espazioan kirola egiteko jantzi bat egin zuen. Espaziora joaten diren pertsonak muskulu masa ez galtzeko egunero bi orduz kirola egin behar dute eta ur-

diaindarraren jantziak langintza horretan lagunduko luke. Bestalde, bi taldeek robot bana egin eta programatu behar izan zuten eta harekin probak gainditu behar izan zituzten. Eta, azkenik, lehiaketan parte hartzean zein balio ikasi zituzten poster batean azaldu zuten. Urdiaindarrak irailetik astero udaletxean elkartu dira prestatzeko. Matrikula Sakana kooperatibak eta Magotteauxek pagatu dute.

Altsasuko Legomastodontes Junior mailan aritu zen (9 urteko 5 kide eta 7 urteko 1). Maketa bat aurkeztu behar zuten eta altsasuarrek ilargiko base batena egin zuten. Hura egiteko astero Gure Etxea eraikinean elkartu dira azaroaz geroztik ostiralero. Haurrak esperientziarekin “pozik”, errepikatze gogoz daude. Bestalde, Nafarroan lehiaketa babesten zuten enpresen artean Aldakin zegoen.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 22

BAKAIKU Festak antolatzeko batzarra.
18:00etan, udaletxeko auzoan.**ALTSASU** Gazte agenda. Slime.
18:00etan, Intxostiapuntan.**IRURTZUN** Martxoaren 8ko grebari buruzko informazio-wasablada.
18:30ean, karpan.**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.**SAKANA** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranz, Bakaiku eta Olaztin.
20:00etan, plazan.**ALTSASU** Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.**ALTSASU** *The old man and the gun* gaurkotasunezko filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 23

LAKUNTZA Kanpezo-Yoar-Kodes ibilbidea eginen dute Zabalarke**mendi elkarteko mendizaleek.**
07:30ean, plazatik.**ETXARRI ARANATZ** Greba feministari buruzko informazio gunea.
11:00etatik 21:00etara, plazan.**ALTSASU** Oinez Basoa 2018ren mustutzea.
11:30ean, Usolarrainen.**ALTSASU** Gazte agenda. Gaueko gynkana eta pikoteo.
18:00etan, Intxostiapuntan.**ALTSASU** Dantzaz konpainiaren *Growing young* ikuskizuna.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 24

IRURTZUN Imotz itzulia eginen dute Iratxoko mendizaleek.
08:00etan, Iratxotik.**ETXARRI** Greba feministari buruzko informazio gunea.
11:00etatik 21:00etara, plazan.**ALTSASU** Haize Berriak bandaren eta Sakanako Musika Eskoletako ikasleen kontzertua.
17:00etan, lortia kultur gunean.**ALTSASU** Gazte agenda. Proiektzioa: *Neskak jaietan*.
18:00etan, Intxostiapuntan.**ALTSASU** *The old man and the gun* filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.**ALTSASU** *Entre dos aguas* filmaren emanaldia.
19:40etan, lortia kultur gunean.**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 25

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.
12:00ean, udaletxearen parean.

ASTEARTEA 26

ALTSASU *El pintor de sonrisas* liburuaren aurkezpena Mari Romero egilearekin.
19:00etan, Haritza tabernan.

OSTEGUNA 28

ALTSASU. *Venezuela. Zer ari da gertatzen?* hitzaldia. Hizlaria: Agustin Otxotorena. Askapena.
18:30ean, Gure Etxean.**ETXARRI ARANATZ** Iyoteak: Garikunde.
19:00etan, plazan.**ALTSASU** *La clase de piano* filma.
19:40etan, lortia kultur gunean.**ALTSASU** *Un día mas con vida* filmaren zineforum emanaldia.
19:40etan, lortia kultur gunean.**URDIAIN** Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena.
Otsailaren 22ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, liburutegian.**ZIORDIA** Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena.
Otsailaren 25etik martxoaren 7ra arte. Astelehenetik ostiralera 16:30etatik 20:30etara, liburutegian.**ALTSASU** Barne Barnetik Alvaro Mundiñano etxarriarraren margolanen erakusketa.
Otsailaren 5etik 24era. Astelehenetik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.**ALTSASU** Altsasuko inauterietako erakusketa.
Otsailaren 25etik martxoaren 8ra. Astelehenetik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.**ALTSASU** Adela Sanchezen eta A. Arrizabalagaren artelanen erakusketa.
Otsailaren 15etik apirilaren 15era. Asteartetik ostiralera 16:00etatik 21:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzaleku tabernan.

ZORION AGURRAK

Nahia eta Enara
Zorionak zuen zazpigarren urtebetzean!!
Muxuak familia guztiazen partez!!

**DE KOVEN
NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.

 info@dekovenavarra.com
 www.dekovenavarra.com
 Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
 Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860


ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifikak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Janire Ertiti Sarasola**, otsailaren 5ean Egiarretan
- **Alessio Jonas Sanchez Maidana**, otsailaren 13an Altsasun
- **Ruth Fernandez Dos Anjos**, otsailaren 16an Altsasun


EZKONTZAK

- **Elena Herrero Santesteban eta Iñaki Garcia San Roman**, otsailaren 19an Olaztin


HERIOTZAK

- **Maria Juana Mugika Mazkianan**, otsailaren 13an Altsasun
- **Florencia Maria Aizkorbe Castrens**, otsailaren 16an Uharte Arakilen
- **Ascensión Garzo Villarroel**, otsailaren 18an Olaztin


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN**Ostirala, 22**


Goizean lainoa sortuko dira. Zeru hodei gutxiarekin edo oskarbi egongo da; azken orduetan goi-hodei batzuk agertuko dira.

Igandea, 24

Eguraldiak antzeko jarraituko du, baina hodei batzuk agertuko direnez, tenperaturari ez dio hainbeste igotzen utziko.

Larunbata, 23

Eguraldiak ez du aldatzeko traza handirik izango eta larunbatean berriz ere giro argia izango dugu. Eguzkitsua egongo da egun guztian zehar.

Astelehena, 25

Giro garbi eta ederrarekin jarraituko dugu. Hego haizeak gogor jo dezake eguneko zeinbat momentuetan.

IRAGARKI SAILKATUAK**LANA/NEGOZIOAK****LAN ESKAINTZA**

Arbizu: Estetizista autonomo baten bila nabil. Buxek ileapaindegia barruan daukadan gela alokatuko nioke. Fernando Urkia, 1. Arbizu. Interesatuak deitu 663 540 272.

Kudeatzailerak oposaketa martxan: Atabo Altsasu SL enpresa publikoaren bidez kirol azpiegiturak kudeatzeko interesa duten Altsasuko udalekuean instantzia aurkeztu beharko dute. Lanpostuak lehen multzoko kategoria izango du, lanaldi osokoa. Informazio gehiago Altsasuko udalekuean.

IKASTAROKAK

Cedema Garalur Elkartek enpresa-kudeaketari buruzko bi ikastaro antolatuta ditu. "Antolatuta zure paperak ogasunarekiko betebeharrak betetzeko" martxoaren 12an, 10:00etatik 14:00etara egingen da. Eta "Ziurtagiri digitalak eta ogasunarekiko izapideak" martxoaren 20an, asteazkenean, 10:00etatik 12:30era izanen da. Informaziorako edota izena emateko: 619 328 264 telefonoa edo sakana. admon@cederna.es e-posta helbidea.

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD Altsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK

Bakaikuko inauteria: Martxoaren 2an kamarraren bazkaria joateko, izena eman elkarteko zerrendan edo 603774852 whatsapp zenbakira idatziz. Makarroiak edo babarrunak, aukera jakinarazi.

Olatzagutiko inauteria. Herri-ihotean parte hartzeko larruak udalekuean banatuko dira ohi bezala otsailaren 28ra arte, 10:00etatik 14:00etara. Gazteen eta helduen parte hartzea errazteko, larruak hartzeko lehenetsatua izango dute 13 urtetik gorakoek. 20 euroko fidantza pagatu beharko da.

Adona Odol-emateak Lakuntzan: Martxoaren 5ean, 17:00-20:30. www.adona.es/eu

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. 600 482 024 telefonoan edo AEKren Itsasi euskaltegia duzu informazio guztia.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egingen dira bilerrak.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalaz eta finantzaz: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural Kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Pabi) telefonotara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikariak bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarregui@gmail.com edo amigosjosefinaarregui.blogspot.com

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritzak eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkartek langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK**OPATUTAKOAK**

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaur-rekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.
ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolache
Grupolache
www.tanatoriosirache.es



Julen Martijak eta Altunak garaipen oso garrantzitsua lortu zuten Artolaren eta Mariezkurrenaren kontra. IÑIGO ROYO

Finalerdietan egon nahi du

PILOTA Binakako Txapelketa: Altuna-Martijak edo Artola-Mariezkurrenak lortuko dute Binakako finalerdietarako sailkatzeko azken txartela. Zabaleta eta Irribarria finalerdietarako sailkatu dira eta Ezkurdia eta Galarza kanpo geratu dira

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkan azken unera arte iraungo du emozioak. Ligaxkako 14. eta azken jardunaldia jokatu da asteburu honetan eta bertan erabakiko da zein bikok eskuratuko duen finalerdietarako sailkatzeko azken txartela, Altuna III.a-Martijak edo Artola-Mariezkurrena II.ak. Dagoeneko ondoko bikoak daude sailkatuta finalerdietarako: Elezkano eta Rezusta, Irribarria eta Zabaleta eta Olaizola ordezkatu duen Victor eta Albisu.

Beraz, Binakako ligaxkako azken jardunaldi honetan emozioa pil-pilean egongo da bukaeraino. Gaur, ostiralean Urrutikoetxea-Aretxabaletak eta Elezkano II.a-Rezustak Oñatin jokatu dute partida (22:00etan, ETB1). Partida honetan ez dago ezer jokoan, sailkapeneko puntua izan ezik, Elezkano II.a eta

Rezusta finalerdietarako sailkatuta baitaude (9 puntu) eta Urrutikoetxea eta Aretxabaleta aukerarik gabe daudelako (3 puntu). Gainera, partida honek ez du gainontzekoetan eragiten. Baina azkeneko partidetan puntuatu gabe egon eta gero, 10. puntua lortu nahi dute Elezkano eta Rezustak, eta laugarrena Urrutik eta Aretxabaletak. Beraz, lehia, egon, egongo da.

Ezkurdia eta Galarza, Altuna III.a eta Martija laguntzera

Joseba Ezkurdia eta Ladis Galarzak finalerdietara sailkatzea

EZKURDIA ETA GALARZA ARTOLA ETA MARIEZKURRENA GARAITZEN SAIAUTUKO DIRA BIHAR LABRITEN

jokoan duten Artola eta Mariezkurrena II.a izango dituzte arerio bihar, larunbatean, Labriten (17:45ean, ETB1).

Finalerdietarako sailkatzeko irabaztea ezinbestekoa dute Artolak eta Mariezkurrenak, galduz gero Altuna eta Martija sailkatuko liratekeelako, baina Joseba Ezkurdia eta Ladis Galarza hori ekiditen saiatuko dira, Aspeko euren taldekide eta lagun Altuna eta Martija laguntzeko eta txapelketa 7 punturekin despeditzeko. Beraz, tentsio handiko partida izango da biharkoa, Ezkurdia eta Galarzak txapelketan behetik gora egin dutelako eta larunbatean, Labriten, sekulako erakustaldia eman zutelako Bengoetxea eta Imaz 14 tantotan utzi eta gero. Txapelketako euren seigarren puntua lortu zuten, baina, tamalez, finalerdietako borrokatik kanpo

geratu ziren. “Guk gurea egin behar dugu larunbatean, eta hori egiten gure taldekideak laguntzen baditugu, hobe. Txapelketa ongi despeditu nahi dugu; sentsazio onekin bukatzea garrantzitsua da” azaldu zuen Ezkurdia material aukeraketan.

Artolak eta Mariezkurrenak adierazi zuten “gure partida irabaztera aterako gara tanteoa kontuan izan gabe. Gainera, beste partida, Irribarria-Zabaleta eta Victor-Albisuren kontrakoa, ordu berean jokatu da eta ez dugu gertatzen dena jakingo. Txapelketa honetan guztiak gara arerio, enpresa berdinekoak barne” azaldu zuten.

Beraz, partida nahiko pertsua espero da atzera ere leporaino beteta egongo den Labriten, eta gakoa atzeko koadroetan egongo dela dio katedrak: opari gutxien egiten duenak eta atzean gailentzen denak asko izango du irabazteko. Beraz, Labriteko partida oso gogorra eta estua izango dela aurreikusten da.

Irribarria-Zabaleta eta Victor-Albisu, paradoxa

Egun berean, larunbatean, Victor-Albisu eta Irribarria-Zabaleta elkarren kontra ariko dira Ataunen (17:45ean).

Bi bikoak finalerdietarako sailkatuta daude, baina euren partida oso erabakigarria izango da. Izan ere, Altuna III.a-Martijak eta Artola-Mariezkurrena II.ak euren partidak irabazten badituzte, Ataungo emai-

tzak erabakiko du nor pasako den finalerdietara. Binakako Txapelketako paradoxa da hau, Asperi bere bikoteak, Irribarria-Zabaletak galtzea komeni baitzaio Altuna III.ak eta Martijak aurrera egiteko eta Baiko Pilotari bere bikoteak, Victor-Albisuk, galtzea komeni baitzaio Artola eta Mariezkurrena sailkatzeko. Lau pilotarien papera ez da batere xamurra, berez, irabazten duenak bere taldekideak kalte-tuko dituelako.

Altuna eta Martija sailkatzeko karanbolak

Bukatzeko, igandean jokatu da ligaxkako azken jardunaldiko beste partida erabakigarria, Tolosan (17:00etan, ETB1). Altuna III.ak eta Martijak Bengoetxea VI.a eta Imaz izango dituzte aurkari. Altunak eta Martijak hainbat aukera dituzte finalerdietara sailkatzeko. Irabazten badute eta Artolak eta Mariezkurrena II.ak galdu, Aspekoak sailkatuko dira finalerdietarako; irabazten badute eta Artolak eta Mariezkurrenak ere irabazten badute, Ataungo partidako emaitzak erabakiko du eta Victorrek eta Albisuk irabaziko balute aurrera egingo zuten Altunak eta Martijak. Eta bi bikoek galtzen badute, Altuna III.ak eta Martijak egingo dute aurrera. Bengoetxea VI.ak eta Imazek ez dute ezer jokoan baina Baiko Pilotako bere kide Artola eta Mariezkurrena laguntzen saiatuko dira, eta, hortaz, asko dago jokoan.



Ezkurdia eta Galarzak Artola eta Mariezkurrena izango dituzte aurkari. BAIKO

Osasuna Magna Xota hirugarrena da ligan

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak bina berdindu zuen Santa Colomarekin, baina Movistar Interrek galdu zuenez, hirugarren postura igo dira berdeak. Gaur sailkapenean azkena den Antequera hartuko dute Anaitasunan, 20:30ean

Osasuna Magnak Badalonako Estadio Olimpicoan jokatu zuen azken jardunaldian, Santa Colomaren kontra. Partida nahiko nahasia izan zen. Hasi eta berehala, 2. minutuan, Uri Santosek Santa Coloma aurreratu zuen. Xotak berehala erantzun zuen, Santa Coloma estutzen hasi zen eta gol aukera ugari sortu zituen, bata bestearen atzetik, baina Santa Colomaren atezaina bikain aritu zen, partidako onena izan zen, eta berdeen asmoak zapuztu zituen. Datuak aintzat hartuta, lehen zatian 13 geldialdi egin zituen Santa Colomako Feixas atezainak. Osasuna Magna eraso eta eraso, baina ez zuten kataluniarren atea zulatzen. Baina, azkenean, 19. minutuan, Dani Saldisek bana berdintzea lortu zuen, jokalar berdeen lasaitasunerako.

Bigarren zatian atzera ere Santa Coloma aurreratu zen. Egoera berbera errepikatu zen, Osasuna Magnak erasoekin



Roberto Martil, erasoan. XOTA

erantzun baitzuen. Ongi defendatu zuten kataluniarrek eta Imanol Arregik Araça atezain-jokalar jartzea erabaki zuen partida bukatzeko 5 minuturen faltan. Rafa Usinekin bina berdintzea lortu zuen, eta hortik au-

rrera Santa Coloma erasora pasa zen eta gola sartzeaz egon zen, baina talde irurtzundarreko atezainak, Asierrek, bikain defendatu zuen atea, geldialdi ikusgarriekin eta bina berdinduta, puntu banaketarekin despetitu zen lehia.

“Uste dut hobeak izan garela. Lehen zatian bizia barkatu diegu: 27 aldiz bota dugu, eta eurak 6. Hobeak izan gara, baina gola sartzea, besterik ez zaigu falta izan. Euren atezaina Feixas, ikusgarri aritu da, partidako onena izan da” aipatu zuen Imanol Arregik partida bukaeran.

Gaur Antequeraren kontra Barça Lassa da areto futboleko lehen mailako liderra (52 puntu), El Pozo Murcia bigarrena (48 puntu) eta Osasuna Magna hirugarrena (44 puntu). Gaur, ostiralean Osasuna Magnak sailkapenean azkena den BeSoccer UMA Antequera hartuko du, 20:30ean, Anaitasuna Pabilioian.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN KIMUAK ALTSASUN

11:00 Lagun Artea 07 - Urdiain

11:00 Tipi Tapa - Etxarri Aranatz A

12:00 Lagun Artea 08 - Etxarri Aranatz

Sakanako Futbol Topaketak:

igandean kimuak Dantzalekun

Igandean Sakanako Futbol Topaketetan kimuen mailako 11. jardunaldiko partidak jokatuko dira Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian, goizeko 11:00etatik aurrera. Guztira hiru partida izanen dira jokatuko direnak.

Benjaminek, bestalde, martxoaren 10era arte atsedena hartuko dute.

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbiderratu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoen futboleko arituz ongi pasatzea da asmoa, euren arteko harremana sustatzea.



ELOMENDI TXAPELKETA

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zaldua - Ageri 4-2

SAILKAPENA

ELOMENDI TXAPELKETA

1 Zaldua 32

2 Elomendi 32

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe Apolo - Zaldua (Noain)

Zalduak lider jarraitzen dira

Arakilgo Zalduak 4 eta 2 irabazi zion Ageriri eta lider jarraitzen du, Elomendi bigarrenarekin puntutara berdinduta. Bihar 8.a den Apolo izango du aurkari.

FUTBOL PREFERENTEA

20. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Ilunberri 1-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 40

10 Etxarri Aranatz 25

PARTIDUA

LARUNBATEAN

16:00 Castillo Tiebas - Etxarri (Tiebas)

Etxarriren garaipena

Etxarriren eta Berriainen arteko partida bi arerio zuzenen artekoa izan zen. Ongi hasi ziren etxarriarrak, baina ez zituzten jokaldiak behar bezala despetitzen. Ilunberri ere ez zuen asmatzen. 2. zatiko 73. minutuan Javik Etxarriren aldeko gola sartu zuen. Ongi defendatu zuten etxekoek eta 3 puntuak etxean geratu ziren.

FUTBOL ERREGIONALA

21. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Aurrera 3-1

Altsasu - Berriozar 0-0

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagun Artea 54

4 Altsasu 35

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

15:30 Berriozar - Lagun Artea (Berriozar)

IGANDEAN

16:30 Beti Kozkor - Altsasu (Plazaola)

Lagunek irabazi eta Altsasuk berdindu

Lagun Arteak garaipen erraza lortu zuen Aurrera taldearen kontra, Xabierrek, Zubizarretak eta Zabalok sartutako golei esker, eta igoera fasean sailkatzeko borrokan Altsasuk eta Aurrerak duten lehian faborea egin zieten altsasuarekin. Aldiz, Altsasuk ez zuen aukera behar bezala aprobetxatu eta husna berdindu zuen Berriozarrekin.

EMAKUM. ERREGIONALA

21. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Amigo 0-1

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 55

12 Altsasu 19

HURRENGO JARDUNALDIA

GAUR, OSTIRALEAN

19:30 Altsasu - Izarra (Dantzaleku)

Altsasuk Izarra hartuko du

Altsasuk Amigoren kontra jokatu zuen igandean Altsasun eta Amigok lortu zuen garaipena. Gaur, ostiralean, sailkapenean 8.a den Izarra hartuko du Altsasuk.

Servicio

Garaje Urbasa

OPEL, NISSAN eta orain...
HYUNDAI

Garaje Urbasa, S.A.
Gasteizko etorbidea z/g 948 562 456 Altsasu



Irurtzun pilota klubaren taldeko argazkia, Lacturale babeslearekin. IRURTZUN

EHko Kluben Artekoa: Irurtzun Buruzgainen kontra, finalerdietan

PILOTA Final laurdenetan Iurreta mendean hartu eta gero, igandean finalerdia jokatu du Irurtzunek

Aurreko urtean Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionalen txapeldunordea izan zenez, aurtengo txapelketan final laurdenetan sartu zen lehian Irurtzun kluba. Larunbatean, Tolosako Beotibar pilotalekuan, aurtengo errebelazioetako bat izaten ari den Iurreta taldearen kontra jokatu zuen Irurtzunek final laurdena.

Irurtzun eta Iurreta klubaren arteko lehia gogorra espero zen, eta ikusmina handia zen. Baina onartu beharra dago Irurtzunge klubak errepaso handia eman ziola orain arte errebelazio handiena izandako Iurretako Olaburu klubari. Lau t'erdian Olababalek (Irurtzun) 6 tantotan utzi zuen Zezeaga (Iurreta), buruz burukoan Ongayk (Irurtzun) 18 eta 7 hartu zuen mendean Otadui eta binaka Ollok eta Bergerak (Irurtzun) 22 eta 11 irabazi zieten Bereikuari eta Badiolari (Iurreta). Beraz, me-rezimendu osoz pasa dira finalerdietara Irurtzunge pilotariak.

Igandean finalerdia Buruzgainen kontra

Asteburu honetan jokatuko dira Euskal Herriko Kluben Arteko V. Txapelketa Nazionalen finalerdiak, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Bihar, larunbatean, 19:00etan, Oberena eta Hernani lehiatuko dira eta igandean, 17:00etan, Ultzamako Buruzgainen kontra ariko da Irurtzun.

Bi finalerdi ikusgarri espero dira. Irurtzun eta Buruzgain taldeen artekoari dagokienez,

talde zabala eta indartsua dauka Buruzgainen eta pilotari bat baino gehiago erabil dezake modalitate bakoitzean, komeni zaien arabera. Espero daitekeen alineazioa ondokoa da: lau t'erdian Iriarte, Larraungo pilotari beterranoa, sasoi betean dagoena; banaka Gaskueko Unai Astiz, manomanista peto-petoa; eta, binaka, Olaizko Iñigo Larunbe eta Larrainzarko Andoni Gaskue.

Irurtzun da, printzipioz, edizio honetako faboritoena. Luxuzko pilotariak ditu, afizionatueta maila handiko tituluak lortutakoak. Lau t'erdian Olazabal aresoarrak ordezkatu du Irurtzun, modalitatea ederki dominatzen duena; banaka, Alberto Ongay satrustegiarrak, manomanista aparta, defentsa onaz aparte tantoa erraz bukatzen duena; eta, binaka, Ollo eta Iosu Bergera arruazuarra, maila ikaragarriko bikotea.

EH finalerdia

Euskal Herriko Kluben Arteko finalerdia: Igandean, 17:00etan, Beotibarren

Buruzgain vs Irurtzun

- **Lau t'erdian** Iriarte (Buruzgain) / Olazabal (Irurtzun)
- **Banaka** Astiz (Buruzgain) / Ongay (Irurtzun)
- **Binaka** Larunbe-Gaskue (Buruzgain) / Ollo-Bergera (Irurtzun)

Nafarroako irristalariak Olaztin bilduko dira bihar

IRRISTAKETA Nafarroako Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketako III. jardunaldia jokatu da bihar, larunbatean, Olaztiko Erburua kiroldegian, 10:00etatik aurrera. Sakana Patin taldeko irristalariak bertan ariko dira

Nafarroako Iristaketa Indoor Txapelketako III. Jardunaldia bihar, larunbatean, jokatu da Olaztiko Erburua kiroldegian, Sakana Patin Taldeak Nafarroako Iristaketa Federazioaren eta Olaztiko Udalaren laguntzarekin antolatuta.

Nafarroako irristaketa klub ezberdinetako ehundaka irristalari espero dira, tartean Sakana Patin taldekoak.

Goizeko 10:00etan hasiko dira irristalariak lanean. Kategoria ezberdinetako linea lasterketak eta taldekako errelebo probak egongo dira jokoan. Kategoria guztiak lehiatuko dira: mini, aurrebenjamin, benjamin, ki-muak, haurrak, gazteak, juniorrak eta seniorrak. Hasieran lineako probak jokatu dira eta, ondoren, erreleboak.

Iristaketa sustatu

Iristaketaz gozatzeko primera-ko aukera eskainiko du bihar Erburua kiroldegia, Nafarroa-



Aurreko urteko Nafarroako Indoor Txapelketako jardunaldia. SAKANA PATIN

ko puntako irristalariak ariko baitira lanean, tartean Sakana Patin taldekoak. Gurean irristaketa sustatzea, hori da Sakana Patin taldearen helburuetako bat, irristaketa probak bulkatzearekin batera. Sakanan pista

bat egiteko beharra ikusten du Sakana Patin taldeak eta ibarrean irristaketarako araudizko pista bat sortzea da aspaldi aldarrikatzen duena, irristalariak baldintza egokietan entrenatu ahal izateko.

Ion Cerviño selekziora

ARETO FUTBOLA Espainiako 17 urtez azpiko selekzioak bi lagunarteko partida jokatu ditu hurrengo astean Portugalen kontra Mallorcan, eta bertan aritzeko deitu dute Xotako jubeniletan jokatzeko duen 15 urteko Ion Cerviño irurtzundarra. Jubenilen taldean aritzeaz gain, astero Imanol Arregiren aginduetara entrenatzen du Cerviñok, lehen taldearekin.



Nafarroako hiru txapeldun sakandar Valtierran

DUATLOIA Valtierrako Duatloian Sergio Garcia de Eulate 9.a sailkatu zen, eta hiru txapeldun nafar ditugu: Nahia Imaz kadete txapelduna, Javier Gomez Beteranoen 2. mailako txapelduna eta Peio Bergara Beteranoen 3. mailako txapelduna

Hasi da Nafarroako duatloi denboraldia. Asteburuan VII. Valtierrako Duatloia jokatu zen, 2019ko Nafarroako duatloi egutegiko lehendabiziko lasterketa, aldi berean 2019ko Nafarroako Duatloi Txapelketa izan zena. 250 duatletek hartu zuten parte, ondoko distantziak betetzeko: hasieran 5 km osatu zituzten korrika, gero boxetan bizikleta hartu eta 21 km bizikletan egiteko, eta azkenean bizikleta utzi eta 2,5 km-ko korrikaldia egin zuten, helmugaraino. Duatleta sakandarrek modu ezin hobean ekin zioten denboraldiari, sakandar bat top-tenean sailkatzeaz aparte, hiru txapeldun nafar sakandar ditugulako.

Garcia de Eulate eta Imaz, lehen sakandarrak

Valtierrako Duatloia Adrien Latesterek irabazi zuen (1:00:25) eta Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate 9.a sartu zen (1:01:23). Emakumezko-



Nafarroako hiru txapeldunak. SAKANA T.T.

tan Nuria Rodriguez gailendu zen (1:10:44), eta Nahia Imaz izan zen lehen sakandarra, 12. postuan (1:17:05). Sakana Triatloi Taldeko gainontzeko duatletak ere bikain ibili ziren. Horren isla, Nahia Imaz Nafarroako kadete

Sakandarrak

Gizonezkoak

1.Adrien Latestere	1:00:25
9.Sergio Garcia Eulate	1:01:23
13.Mikel Astiz	1:02:24
32.Fco. Javier Gomez	1:06:10
36.Ivan Sobredo	1:06:25
42.Jose Ignacio Mikeo	1:07:10
50.Juan Carlos Gomez	1:07:58
144.Peio Bergara	1:21:01

Emakumezkoak

1.Nuria Rodriguez	1:10:44
12.Nahia Imaz	1:17:05
23.Silvia Perez	1:25:58

mailako emakumezko txapelduna izan zen, Javier Gomez beterano 2 mailako Nafarroako txapelduna izan zen eta Peio Bergara beterano 3 mailako Nafarroako txapelduna. Asteburuan Lizarrako Duatloia jokatu da.



Altsasuko Duatloierako izena ematea Nafarroako Triatloi federazioan egin behar da.

Altsasuko Copreci Duatloirako izena ematea zabalik

DUATLOIA Martxoaren 23an jokatu da proba; Arbizuko duatloia, aldiz, aste bat beranduago, martxoaren 30ean

Sakana Triatloi Taldeak IX. Altsasuko Copreci Duatloia antolatu du martxoaren 23rako. Goizeko 10:30ean kategoria txikikoen probak jokatu dira, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak, Txioika ikastola parean. Arratsaldean, aldiz, nagusien txanda izango da, sprint distantzian (5 km korrikan, 22 km bizikletan eta 2,5 km korrikan). Emakumezkoak 15:45ean abiatuko dira, gizonezkoak 15:51ean eta erreleboak 15:52ean. Juniorrek eta kadeteek helduen proban parte hartuko dute. Izena emateko epea zabalik dago Na-

farroako Triatloi Federazioan (www.navarratriatlon.com/inscripcion). Federatuek 22 euro ordaindu beharko dituzte, federatu gabekoek 26 euro eta kategoria txikikoek ez dute ordaindu beharko.

Arbizuko Duatloia, martxoaren 30ean

Aste batera, martxoaren 30ean, 16:00etan, Arbizuko Duatloia jokatu da. Arbizuko herri lanak direla eta, proba sprint distantzian jokatu da. Izena ematea www.rockthesport.com web orrian egin beharko da.



Gorka Izagirre, podiumean. ASTANA

TXIRRINDULARITZA Gorka Izagirrek Tour de la Provence irabazi du

Astana taldearekin debut bikaina egin du Gorka Izagirrek, Tour de la Provence irabazi baitu.

Ormazabalén Lizarte

TXIRRINDULARITZA Larunbatean aurkeztu zen afizionatuen mailako 2019ko Lizarte taldea. Bertan jarraitzen du Asier Ormazabal Fuste txirrindulari ziordiarak. Juanjo Orozek eta Manolo Azkonak adierazi zuten "helburua da goazen tokian azterna uztea, ikus gaitzela, eta, horrekin batera, txirrindulariak profesional mailara salto egiten laguntzea".



LIZARTE

Burunda klubaren 2019 denboraldiko aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Larunbatean 2019ko taldeak eta denboraldia aurkeztu zituen Burunda Txirrindularitza Taldeak. Aurten 48 txirrindulari trebatuko dira eta bere ibilbideko 42. denboraldiari ekingo dio txirrindularitza klub beteranoak

Burunda Txirrindularitza Klubak bere 42. denboraldiari ekingo dio aurten. "Gure gurasoak orduan hasi ziren taldea sortzeko lanetan, gu txirrindularitzan aritzeko, eta hementxe segitzen dugu, orain gure seme-alabekin txirrindularitza sustatzen" aitatu zuen larunbatean Iortia Kultur Gunean 2019 denboraldiko aurkezpen ekitaldian Oscar Guerrero Burunda Klubeko presidentek.

Aurten, guztira 48 txirrindulari trebatuko dira Burundan, 6 urtetik 18 urte bitarteraino, 34 eskoletako mailan, 8 kadeteen mailan eta 6 juniorretan. Txirrindulari hauen guraso asko



Junior mailako txirrindulariak, aurkezpen ekitaldian. BURUNDA TXIRRINDULARITZA TALDEA

bere garaian ere txirrindulariak izan ziren. "Txikiengana txirrindularitzarako pasioa pizten gurasoak bere garaian txirrindulari izanak beti laguntzen du. Dena den, badaude berez zaletasun hori dakartenak. Ateak zabalik ditugu. Txirrindularitzako lehen eta bigarren urtean klubak bizikletak uzten dizkie neska-mutikoei, eta gero txirrindularitzan jarraitzea erabakitzen badute, ondoren erosten du norberak berea. Guk nahi duguna da neska-mutikoak gustura ibiltzea, kirola sustatzea" gaineratu zuen Oscar Guerrerok.

Burunda klubaren helburua txirrindularitza sustatzea da. "Taldeak itxura ona ematea, jendeak ongi pasatzea, konpromisoa hartzea... Junior mailan konpromiso hori handiagoa izaten da, datorren urtean afizionatuen mailara igotzeko emaitzak behar direlako. Esaterako, Ailetz Lasa afizionatuetara pasa da, Laboral Kutxara" adierazi zuen Oscar Guerrerok.

Guraso askok haurrak errepedera ateratzeko duten erreproaren inguruan mezu lasaia eman zuen Guerrerok. "Autobia

egin zenetik errepede zaharrean oso ongi entrena dezakegu, ez dugu arazorik. Monitoreekin goaz beti, bata aurrean eta beste atzean, eta ez dugu izan arriskurik".

Babesle berberekin jarraituko du Burundak eta klubak esker oneko hitzak izan zituen euredako, taldeak ibilbidean aurrera egiteko ezinbestekoak baitira.

Zortzi lasterketa

Eskolen mailan 4 proba antolatuko ditu Burundak, Ziordian, Olaztin, Altsasun eta Urdiainen, festetan. Horretaz gain, kadete mailan beste 3 proba prestatuko dituzte: apirilaren 21ean Altsasun, uztailaren 2an Urdiainen, festetan, eta uztailaren 17an Iturmendin, festetan. Eta junior mailan martxoaren 17an Burunda Trofeoa jokatuko da.

Burundako zuzendaritzan Oscar Guerrerok jarraitzen du presidente lanetan, Iñaki Lasa presidenteordearen, Gorka Mintegi idazkariaren eta Ismael Perez diruzainaren laguntzarekin. Joxean Begiristain, Goyo Chamorro eta Pablo Urtasun bokalak dira.



42. denboraldiari ekiteko prest

Larunbatean egin zuten Burunda Txirrindularitza Klubaren aurkezpena, Iortia Kultur Gunean. 48 txirrindulari trebatuko dira aurten, eta taldeak itxura ona ematea, txirrindulariak ongi pasatzea eta gutxinaka konpromisoa eta diziplina hartzea, hori da helburua. "Emaitzak lortzea, hori ez da ga-

rrantzitsuena. Txikiak direnean saiatzen gara txirrindularitza errendako jolas bat bezala izaten; kadeteek eta juniorrek, aldez, konpromiso handiagoa dute. Txirrindularitza sustatzea, hori da gure egitekoa" azaldu zuen Oscar Guerrero presidenteak. Babesleen laguntza bihotzez eskertu zuen.

Eskolak (34): Promesak (6): Daniel Curiel Peña, Asier Galarza Zubiria, Javier Ramirez de Alda Rojas, Joritz Claver Flores, Adei Maraño Lakunza eta Iker Agirre Muñoa. **Hasiberriak (15):** Enara Perez Barrenetxea, Patxi Azkarate Andonegi, Ekaitz Zufiaurre Goikoetxea, Egoi Urtasun Etxeberria, Ezkai Lakunza Arza, Markel Urteaga Zelaia, Xabier Curiel Peña, Izai Igeltz Irizar, Unai Gomez Lopez de Goikoetxea, Asier Flores Agirre, Markel Lizarraga Lopez de Goikoetxea, Alex Gonzalez Juanez, Aitzol Hernaz Iraola, Eneko Pinto Vicente eta Ibai Galarza Zubiria. **Kimuak (6):** Ekaitz Perez Barrenetxea, June Etxeberria Anton, Ekain Imaz Perez, Hego Garcia Duran, Oihán Arregi Cano eta Oihán Hernaz Iraola. **Haurrak (7):** Andoni Yerai Bedoya Morales, Ion Ayerbe Senar, Iker Begiristain Andueza, Pablo Senosiain Galarza, Iker Gomez Lopez, Asier Etxeberria Anton eta Mikel Regil Fernandez. **Entrenatzaileak:** Ismael Perez Auzmendi, Pablo Urtasun Perez eta Gorka Mintegi Mazorriaga. **Kadeteak (8):** Julen Guerrero Carrasco, Ander Villalobos Hernanz, Mikel Uncilla Aldasoro, Unax Trevejo Rodriguez, Oihán Etxeberria Anton, Ion Chamorro San Martin, Hugo Aznar Vijuesa eta Sergio Lopez Pelegrin. **Entrenatzaileak:** Ion Irigoien Fresneda eta Aritz Irigoien Fresneda. **Juniorrak (6):** Iker Mintegi Claver, Unai Aznar Vijuesa, Willy Ismael Torres Lucero, Jonathan Felix Vega Barrio, Unai Villalobos Hernaz eta Diego Gonzalo Ducros. **Entrenatzaileak:** Tomas Martinez Viedma eta Eneko Vilar Sisamon.



C.C. LA MOREA
C.C. ITAROA



Laguntzaileak: Txartel, Pienso Unamuno, Berri Bikes, TDH Lizarraga, Borda Jatetxea, Lastadi, Talleres Gabirondo, Electricidad Ramos, Deportes Intxostia, Floristería Lorea, DYA, Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo eta Iturmendiko Udalak, Sakanako Mankomunitatea, Alejandro Hernandez asesoritz, Urbasa Garajea, Tipi tapa oinetakoak, Mapfre eta Carpintería Larrainbide.



Aurreko urteko Arbizuko Zumbathon solidarioa. Aurten martxoaren 17an izango da, Asfape elkartearen alde.

III. Arbizuko Zumbathon solidarioa antolatu dute

ZUMBA Martxoaren 17an izango da, 11:00etan, Arbizuko kiroldegian, eta Perthesa duten familien elkartearen aldekoa izango da. Lehenago, goizeko 10:00etan, Arbizuko haur lasterketa solidarioa jokatu da

Aurten ere Zumbathon solidarioa izango da Arbizun. Martxoaren 17rako antolatu dute, goizeko 11:00etan hasiko da, Arbizuko kiroldegian, eta Perthesa duten familien elkartearen (Asfape) aldeko ekimena izango da.

Zumbathoian parte hartuko dutenek 5 euro ordainduko dituzte eta ikusleek 2 euro. Hiart Leitza eta Anabel Arraizak aur-

keztuko dute ekitaldia eta Carolina, Ainhua, Maria, Itziar eta Mayra monitoreekin zumban aritzeko aukera izango dute izena ematen dutenek, primerako giroan. Ainara eta Charles ere gonbidatuak izango dira ekitaldira. Bitartean, zozketak izango dira: Ezkurdia eta Irujo pilotarien kamisetak, Xota eta Lagun Artea taldeen kamisetak,

Osasunako produktuak, produktu ezberdinen loteak... eta abar.

Aurretik Arbizuko haur lasterketa solidarioa

Martxoaren 17an, Arbizuko Zumbathoia hasi aurretik, Arbizuko haur lasterketa solidarioa antolatu dute, goizeko 10:00etan, Arbizuko kiroldegian, "Zure izenean korrika" lelopean. 1,2

km-ko proba herrikoia izango da, kiroldegian hasi eta desedituko dena, Perthesa duten familien elkartearen aldekoa. Izan ere, Perthes gaitza duten umeek korrika aritzeko debekua dute, eta horregatik, lasterketa honetan adin guztietako korrikalariak dortsalean perthesadun umeen izenak eramango dituzte, haien ordean korrika egiteko. Dorsalak 3 euroko balioa du.

Jasotakoa, Asfape elkartearendako

Lasterketa solidarioan eta zumbatoian jasotzen dena Asfape elkartera bideratuko da. Asfapek Perthes gaitza duten familiak biltzen ditu. Elkartearen familia sakandarrak ere badaude, eta ilusio handiz hartu dute Arbizuko Zumbathon solidarioaren ekimena.

Perthes gaixotasuna, Legg-Calvé-Perthes izenaz ere ezaguna da. Gaixotasun hau jasaten duten haurrei izterrezurraren burura uneraren batean odol jarria ez zaie iristen eta hortaz, hezur horretako zelulak hil egiten dira, horren ondorioz higadura gertatzen da. Hiru urte eta hamalau urte bitartean diagnostikatzeko da, eta mutikoetan ohikoagoa izaten da. Higadura hori gertatzen denean, zonalde hori sendatzeko aukera dago, zelula berriak sor daitezke, baina oso ongi zaindu eta behatu behar da aldakan ahalik eta eragin gutxien sortzeko.



Altsasuko igeriketa jardunaldia. AMAYA

IGERIKETA Zelandi igerilariz bete zen larunbatean

Altsasuko Zelandi kiroldegiko igerilekuak XXXII. Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Nafarroako Promesen Igeriketa Ligako kimuen mailako 4. jardunaldia hartu zuen larunbatean. Pamplona CN, Amaya CD, Tennis P., Arenas SDR, Campoamor C., Tafalla CN, Txantrea KKE, V. Aranguren, Ribera Media, Atalaya, Eskuna, Etxabakoitz eta Sakana Igeriketa Taldeak lehiatu ziren.

SASKIBALOI CBASKek bi San Ignacionen kontra jokatu du

Autonomia Artero 2. mailan 17. jardunaldia jokatzen ari da egunotan, baina sailkapenean 9.a den Altsasuko CBASK saskibaloit taldeak bi partida jokatu ditu asteburuan. Gaur, ostiralean, 17. jardunaldiko partida eta igandean, aldiz, atzeratutakoa. Gaur, ostiralean, sailkapenean laugarrena den Iruñeko San Ignacio taldea hartuko du CBASK-ek, 20:00etan, Zelandi kiroldegian. Eta igandean, otsailaren 24an, 16. jardunaldian atzeratutako partida jokatu du CBASK-ek sailkapenean bosgarrena den San Ignacio Riojaren kontra, 17:00etan, Logroñoko Paula Montal kiroldegian. Beraz, bi San Ignacionen kontra lehiatu dira altsasuarrak asteburu honetan.

Autonomia Artero 2. mailan Cenicero La Alcoholarak jarraitzen du lider (28 puntu), Domiberia bigarrenari bi puntu aterata (26 puntu). Bi partida jokatzeke, CBASK bederatzigarrena da (18 puntu).

Kanpezo, Imotz eta Gorbeia

MENDIA Lakuntzako Zabalarre klubak Kanpezo, loar eta Kodes arteko ibilbidea egingo du larunbatean. 7:30ean hartuko dute autobusa, plazan. Irurtzungo Iratxo mendi klubekoek, berriz, Imotz Itzulia egingo dute igandean (8:00etan, Iratxon). Altsasuko Mendigoizaleak igandean goizeko 8:00etan elkartearen geratu dira, Gorbeiara joateko.



IRATXO

Haize Berriak eta musika ikasleak elkarrekin

Kontzertu bateratua egingen dute etzi, igandea, 17:00etan, Iortia kultur gunean

ALTSASU - SAKANA

Haize Berriak musika bandak eta Sakanako musika eskoletako ikasleak kontzertua eskainiko dute igandean, 17:00etan, Iortia kultur gunean.

Musika eskoletako ikasleak etorkizuneko bandako musikariak izan daitezke; hortaz, esperientzia hartzen joateko iaz hasi ziren bost urteren ondoren Haize Berriak bandaren eta musikari gazteen arteko kontzertua hau egiten. Abesti ezagunez osatutako erreperatorio egin dute, gehienak zinemarekin zerikusia dutenak: *Dartacan y los Mosqueros*, *La historia interminable*, Dinsey-ko *It's a small world*, *Los chicos del coro* film ospetsuaren *Cerf volant* abestia eta beste hainbat abesti.

Irurtzango, Lakuntzako, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olaztiko musika eskoletako ikasleak arituko dira bandako kideekin batera.

Tarima Beltza antzerki taldea Garesen izanen da

Madres y Pasotas antzezlanaren birarekin jarraitzen du Altsasuko Tarima Beltza antzerki taldeak. Aurreko astean Mutilbeitiko El Bardo Escaldado areto berezian eskaini zuen emanaldia eta bihar, larunbata, 20:00etan, Garesko Txilindron aretoan izanen da Tarima Beltza taldea.

Truke sistemaren ondorioz aritzen dira antzerki talde amateurak Nafarroako antzokieta, hortaz, Garesko taldea datozen hilabeteetan Altsasun izanen da laster. Gainera, datorren larunbatean, martxoaren 2an, Lizarrako Kilkerrak taldea egonen da Iortian, 19:30ean *La opera de los suburbios* lanarekin.



Altsasukoak Aske II. Literatur Lehiaketaren sarituen, sari banaketaren aurkezleen eta parte hartzaileen talde argazkia.

Folio zuriak elkartasuna adierazten duenean

Altsasukoak Aske bigarren literatur lehiaketaren sari banaketa izan zen aurreko ostiralean Iortia kultur gunean. Literatur emanaldia ere izan zen. Elkartasuna eta askatasuna izan ziren parte hartu zuten idazleen lanen gai nagusiak

ALTSASU

Iortia kultur gunearen aretoan "dar-dar bat" sumatzen zela esan zuen Dani Martirena ETBko kazetariak eta idazleak. "Elkartasunak normalean dar-dar hori izaten du". Martirena ostiralean egin zen Altsasukoak Aske herri plataformak bigarren urtez antolatutako literatur lehiaketaren sari banaketaren aurkezlea izan zen, Izaskun Etxeberria irakasle eta idazlearekin batera. Literatur emanaldia Adur, Jokin eta Oihan preso daudela 824 egun eta Aratz, Iñaki, Jon Ander eta Julen 245 egun espetxeratu zituztela betetzen zirenean egin zen. Hortaz, "hitz bakar batek adierazten du ekitaldi honen funtsa: aske".

Aurkezleek esan zuten moduan, literatura inguratzen gaituen errealitatearen zatien inguruan hitz egiteko artea da. Eta kontakizunaren hasieran, folio zuri bat dago, edo, gaur egun, pantaila zuria. Ahal dena adierazteko toki txuri bat. Altsasuko

Aske literatur lehiaketara aurkeztutako idazleak folio zuria baliatu zuten elkartasuna adierazteko, askatasuna eskatzeko, amorrua azaleratzeko, mundua ulertzeko, zauriak sendatzeko, edota "Altsasuko gazteak aske izan behar direla aldarrikatzeko". Folio zuri "xume" baten izateko arrazoia argi gelditu zen.

Aske hitza

Folio zuriaren aurrean egotea "ederki dakite" Harkaitz Cano eta Uxue Alberdi idazleak. "Euskarazko literaturan merezitako tokia" duten idazleak literatur lehiaketaren sari banaketan egon ziren. Altsasu Gurasoak-eko kideekin batera sarituei sariak eman ez ezik, euskal idazleak aske hitzarekin idatzitako testuekin poema sortu zuten, eta emanaldi irakurri zuten: "Zuen askatasuna behar dugu gauza guztiak, gauza zailak, elkarrekin egiten jarraitzeko. Gure herriaren gorputz galdua bilatzea, esate baterako".

Sari banaketa ekitaldi xumea izango zela esan zuten aurkezleak, "baina handia ere bada gaurkoa". Altsasukoak aske bigarren literatur lehiaketara 36 lan aurkeztu dira, 20 euskaraz eta 16 gaztelaniaz. Euskal Herriko txoko askotatik iritsi dira lanak: Iruñea, Atarrabia, Altsasu, Etxarri Arantz, Ziordia, Leizta, Arruiz, Tafalla, Ezpeleta, Pasai Antxo, Oiartzun, Donostia, Tolosa, Elgeta, Oñati, Gasteiz eta Munitibar. Saria jaso ondoren, sarituek haien lanak jendaurrean irakurri zituzten.

Elkartasun sariak

Altsasukoak Aske bigarren literatur lehiaketan hiru modalitate zeuden: narrazio laburra, poesia eta mikroipuinak. Euskaraz eta gaztelaniaz izan zitezkeen ere. Gainera, bi kategoria bereizten ziren: 14 eta 18 urte bitartekoak, gazteak, eta 18 urte aurrekoak. Epaimahaia Castillo Suarez filologoa eta idazleak, Alberto Barandiaran kazetariak,

Izaskun Etxeberria irakaslea eta idazleak, eta Arantza Alaba eta Elena Arteta liburuzainek osatu zuten.

Elkartasuna eta askatasuna izan ziren literatur lehiaketaren sarituen gai nagusiak. Hala ere, horiek adierazteko hamaika modu daude: amorrua, zirrara, ironia, umorea... Narrazio laburreko euskarazko modalitatean Joxe Aldasoro Jauregik etxarriarrak jaso zuen lehenengo saria *Kondenatuak* lanarekin. Narrazio laburrean *Eta egia baltiz* testuak jaso zuen bigarren saria, Leire Gorostiza Etxeberria iruindarrarena. Gaztelaniazko modalitatean Mari Izkupe Apesategia iruindarraren *Del siete a la libertad* narrazioak irabazi zuen lehenengo saria, eta bigarren saria Naiara Puertas Cantón donostiarrek jaso zuen *Acuartelados* testuagatik.

Joxe Aldasoro Jauregi etxarriarrak beste sari bat jaso zuen Mikroipuinak euskarazko modalitatean *Atze-oihala* lanagatik. Mikroipuinetan bigarren saria Ezpeletako Zuriñe Otxoa San Romanek jaso zuen *Aldrebeskeriak* mikroipuinagatik. Otxoa ez zen emanaldian egon eta bere lehengusinak hartu zuen saria. Gazteen kategorian Alex Santano Alvaro altsasuarrak *Ekaitza* lanagatik jaso zuen saria. Bere amak hartu zuen saria. Gazteen kategorian Pasai Antxoko Nora Gondat Unzaloen *Frutategi ustela* lanak irabazi zuen lehenengo saria, eta Aratz Fernandez de Pinedo Irastortza gasteiztarren *Larrialdia* lanak jaso zuen bigarren saria.

Gaztelaniazko mikroipuinetan Aitor Iragi Eraul iruindarraren *Esperando la verdad* lanak jaso zuen lehenengo saria, eta *Desinformación y aislamiento. Abajo los muros de las prisiones* Javier Bergara Bergera altsasuarraren testuak jaso zuen bigarren saria. Bergarak performance-a egin zuen bere lana aurkezteko.

Poesia euskaraz modalitatean Maite Iribar Argote oiartzundarraren *Amari* poema sortak jaso zuen lehenengo saria. Bigarren saria Atarrabiako Igor Martinez Aisaren *Gutaz ahaztu ziren* lanak irabazi zuen. Gaztelaniaz Ana Larraza Erdozia altsasuarraren *La vieja Sakana* poemak jaso zuen lehenengo saria, eta bigarren saria Leitzara joan zen Garbiñe Sagastibeltza Lizarragaren *Disfraces* lanarekin.



Lizarrako saioa, Eneko Lazkoz ezkerretik hirugarrena eserita. NAF. BERTSOZALE ELK.

Eneko Lazkoz bigarrena izan da Lizarrako final-laurdenekoan

Nafarroako Bertsolari Txapelketa aurrera doa eta 18 bertsolari pasa dira finalurrekoetara, tartean etxarriarrak

ETXARRI ARANATZ

Txapelketara berriz itzultzea zaila izaten dela esan du Eneko Lazkoz bertsolari etxarriarrak Beleixe irratiari (FM 107,3). Hortaz, lehenengo saioa zaila izaten da. Bere asmoa ahalik eta saio txukunena eta osatuena egitea izan zen, eta "goiko postuetan" egotea. Asmoa lortu zuen, izan ere, bigarrena izan zen Lizarran egindako final-laurden saioan. Nafarroako Bertsolari Txapelketaren azken final-laurdena izan zen igandean, Lizarran, egin zena. Josu Sanjurjok irabazi zuen saioa (265 puntu), eta zuzenean Leitzako finalurrekora pasa zen. Larunbatean, Iruritan jokaturako saioa, Joanes Illarregi nagusitu zen (254,5), eta zuzenean Leitzarako txartela lortu zuen.

Behin final-laurdenak bukatuta, osatu da txapelketarako finalurrekoetan ariko diren 18 bertsolarien zerrenda, eta saio bakoitzeko irabazleak kenduta, bigarren sailkatua izan zen Eneko Lazkoz. Beraz, Atarrabiako finalurrekoan ariko da etxarriarra txapelketan dagoen beste etxarriarrekin, Saats Karasatorrerekin.

Lizarrako saioan bigarren gelditu bazen ere "sentsazio nahiko arraroa gelditu" zitzaion Lazkozi: "uste dut behar baino erlaxatuagoa joan nintzela, eta horren ondorioz normalean egiten ez ditudan akats batzu egin nituen". Besteak beste, zortziko txikian bertso erdian "nahastu" zela esan du Beleixe irratiari

Lazkozek, eta berriz hasi behar izan zen. "Ez nuen buelta ematea lortu". Nahiko erlaxaturik harrapatu zuen. "Tentsioan bazaude modu batera edo bestera bertsoa amaitzen duzu".

Sentsazio "arraroak" izan bazituen ere, Lazkoz bigarrena gelditu zen Lizarrako final-laurdenean 256,5 puntuekin. Josu Sanjurjok irabazi zuen saioa 263 puntuekin eta zuzenean Leitzako finalurrekorako txartela lortu zuen. Sanjurjoren eta Lazkozen atzetik Sarai Robles (255), Julen Zelaieta (250,5) eta Diego Riaño (248) gelditu ziren.

Finalurrekoak

Azken bi final-laurdenak jokatu ziren asteburuan. Larunbatean, Iruritan egin zen saioan, Joanes Illarregi nagusitu zen (264,5) eta Leitzako finalurrekorako txartela lortu zuen. Lau final-laurdenak jokatura, hurrengo fasean ariko diren hemezortzi bertsolarien zerrenda osatu zen. Hortaz, final-laurdeneko bakoitzeko irabazleekin, -Saats Karasatorre, Julio Soto, Joanes Illarregi eta Josu Sanjurjo-, sailkapenaren arabera hurrengo hamalau bertsolariak ariko dira finalurrekoetan.

Sailkapen orokorrean, saioetako irabazleen ondoren, Eneko Lazkoz bigarren sailkatu da eta martxoaren 3an, Atarrabian, finalurrekoa jokatu du, Saats Karasatorre etxarriarrekin batera. Gainera, Maider Ansa etxarriarra izanen da gai-jartzailea saio horretan.

Atzapar Rock arrakastatsua

Atzapar Rock musika talde gazteak bi sari irabazi zituen Iruñeko Txantrea auzoan dagoen Akelarre kultur elkarteak antolatu duen V. musika taldeen lehiaketan: bigarren saria eta publikoaren saria.

Hamabi musika taldeek parte hartu zuten lehiaketan eta hiru iritsi ziren finalera.



UTZITAKOA

Eva Azpilikueta aktore altsasuarra Feten jaialdian

'La casa mas pequeña' lana gaur, ostirala, aurkeztuko dute Xixongo antzerki jaialdian

SAKANA

Nola kontatu gai oso gogorak haurrei? Galdera horri erantzunez Yarleku antzerki konpainiak *La casa mas pequeña* antzezlanak sortu zuten. Gerratik ihes egiten duten bi haurren istorioa kon-

tatzen du antzezlanak. Xixongo Feten-en (Haurrendako Europako Arte Eszenaren festibala) ariko den Nafarroako antzerki konpainia bakarra da. Gaur goizean haurrendako emanaldia egin dute eta, arratsaldean, pu-

bliko orokorrendako saioa izanen da. 17tik 22ra izan da arte eszenikoen jaialdia, Xixonen.

Rosa Diez antzerkigile ospetsua da *La casa mas pequeña* lanaren zuzendaria. Espainiako Arte Eszenikoen saria jaso zuen Diezek. Testua Maialen Diazena da. Eva Azpilikueta altsasuarra antzezlanean Bettina da, maleta eta sagarrondo bat eramaten duen neska bat. Noma da bere laguna, eta bere egoera berdinean dago. Laura Villanueva da Nomaren papera egiten duen aktorea.



BAZTERRETIK

KATRIN GINEA MUNDIÑANO

Ikusi ditut hobeagoak

Duela bi aste, beste hainbat sakandar bezala, El Circo del Sol-en *Toruk* ikuskizuna ikusten egon nintzen ama eta ahizpekin. Aitortu beharra daukat ez zela nire egunik hoberena, ikuskizunean sartzea kostatu zitzaidalako, baina hala ere ikusi ditut ikuskizun hobeagoak.

Ez zen Cirque du Soleil-en ikusten nuen lehen ikuskizuna, hori izan daiteke hainbeste ez gustatu izanaren arrazoietako bat, baina inoiz haien ikuskizunik ikusi ez dutenekin hitz egin ondoren ere nire sentsazioaren antzekoarekin amaitu zutela konprobatu ahal izan dut egun hauetan.

El Circo del Sol-ek ikuskizun honetan zirkuz gutxi du, egia esan. Akrobazia gutxi eta aktoreak nahiko forzaturik iruditu zitzaizkidan. Egia esan, lehen

aldiz ikusi nituenean "flipatu" egin nuen. Urte batzuk pasatu dira Bilbon lehen aldiz ikusi nituenetik. Liluraturik amaitu nuen. Karpa handia izanda ere, eszenatokitik orain baino askoz gertuago geunden. Ikuskizuna akrobaziaz beterik, zuzeneko musika, jantzi eta makillaje diseinu ikaragarria, eta zer esan eszenografia eta eszenaratzeaz. Ikuskizun borobila. Kalitate handikoa.

Ez dut esango oraingoak kalitaterik ez duenik izan, ezta gutxiago ere, baina ikuskizun artifizialagoa bihurtu dutela iruditzen zait.

Bilbon lehen aldiz ikusi eta bi urteetara gutxi gora behera berriro ikusi nituen. Egia esan bigarren aldi hartan ez zitzaidan hainbeste gustatu, suposatzen dut sorpresa puntu hori galdu nuelako. Baina hala ere, zuzeneko musika

hark, makillajeak, jantziek, eszenografiak... berriro ere liluraturik utzi ninduten.

Oraingoan, berriz, hau guztia falta izan zait. Argi diseinuak eta bideo mapping-ek asko merezi izan zuten, argi dago teknologia garaian bizi garela, eta ni bereziki ez naiz oso erromantikoa atzera begiratzean eta analogikoan, baina gauza batzuek zuzenean beste dimentsio bat hartzen dute. Kaleko eraikin batean proiektatutako bideo mapping-ak maite ditudan bezala, zirkuan zuzenekoaren freskotasuna eta zaindutako eszenografia bat maite ditut baita ere.

Akrobaziak faltan bota nituen, adibidez, baita zuzeneko musika ere. Jantzi diseinua eta makillajea ez zeuden gaizki, baita eszenografiako elementu batzuk ere, baina egia esan behar badizuet ezin izan nituen asko preziatu, urrutxi xamar gelditzen baitziren eserlekuetatik.

Beraz... ikusi ditut hobeagoak.

Dantza bizitzen eta sentitzen ikasten

Dantzabide erresidentzia egin da otsailaren 18tik 22ra Altsasuko BHI-n eta Etxarriko Andra Mari ikastolan. Parte hartu duten ikasleek Dantzaz konpainiako kideekin Growing young ikuskizuna egingen dute bihar, larunbata, 18:00etan, lortian

ETXARRI ARANATZ - ALTSASU- OLAZTI
Dantza garaikidea sentitu, bizi eta hurbildu. Dantzaz Oreretako konpainiako dantzari profesionalek dantza garaikidea sentitu, bizi eta hurbildu nahi izan dute Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutu eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastola ikastetxeetako hainbat ikasleei. *Dantzabide* erresidentzia egin dute otsailaren 18tik 22ra. Sortutako koreografiak bihar erakutsiko dituzte *Growing young* ikuskizunean, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Guztira, bi ikastetxeetako 140 ikaslek parte hartu dute Nafarroako Antzoki Sareak antolatutako *Oholtzara salto* programaren ekimenean.

Bi dira *Oholtzara salto* programaren helburuak. Alde batetik, gazteak arte eszenikoetan murgiltzea, eta, bestetik, ikuslegoari eskaintza hurbiltzea. Programak hainbat egitasmo ekarri ditu Sakanara, Nafarroako Antzoki Sarearen barruan dauden herrietara, hain zuzen. Tartean daude abenduan Olaztiako kultur etxean egin zen *Scape Room*-a, Irurtzunen gazteei zuzendutako *Julietta To Da*, genero ikuspegia jorratzen duen antzezlan, martxoan Etxarri Aranatzeko egonen dena; eta Altsasuko institutuan antzerki tailerra antolatu dute. Gainera, dantza erresidentzia egin dute institutuan, eta Andra Mari ikastolan. Bigarren aldia da Sakanako kultura zerbitzuek, Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olazti, bat egiten dutela proiektu komun bat aurrera eramateko. Eta herri hauetako kultur teknikariek azaldu dutenez, "jarraitzea gustatuko litzai-guke".

Mustutzea

Bihar, larunbata, izanen da mustutze "mundiala" Fernando Saez de Ugarte Dantzaz konpainiako zuzendariak azaldu duen bezala. *Growing young* ikuskizuna egi-



Institutuko ikasleak eta Dantzaz konpainiako dantzariak entseguan.

nen dute bihar, larunbata, Iortian, 19:30ean. Ikuskizun "mistoa" izanen da; hortaz, Dantzaz konpainiako dantzariak bi koreografia egingen dituzte, Altsasuko institutuko ikasleek lau eta Andra Mari ikastolako ikasleek bi. Hala ere, Saez de Ugartek esan bezala, "kasu honetan gu, konpainiako dantzariak, teloneoak izanen gara. Protagonismo osoa ikasleek izanen dute".

Dantzari profesionalak

Nazioartean ezaguna da Dantzaz konpainia. Mundu osotik etortitako artistek lan egiten dute sor-kuntza koreografikoetan. Hortaz, konpainiako dantzariak bi koreografo ospetsuek taldearendako sortutako piezak dantzatzeko dituzte: Janis Claxton australiarren *Une* koreografia berezia eta Itzik Galiki israeldarraren *Prelude a wasted tear* (Botatako mal-ko baten preludioa). Israeldarra den arren, Palestinako egoerarekin oso kontzientea dela esan du Saez de Ugartek, eta koreografiak gatazkari buruzko testuarekin bat egiten duela esan du.

Altsasu institutuko DBH-ko 2. mailako D eta A ereduak eta 3. mailako A ereduak eta Etxarri

Aranazko ikastolako 6. mailako ikasleek parte hartu dute Dantzabide erresidentzian. Hasierako lotsak kenduta, gustura aritu direla esan du Javier Casteg institutuko zuzendariak; irribarretsu ateratzen omen ziren entseguetatik. Hurrengo urratsa bihar egingen duten ikuskizunari aurre egitea izanen da. Gaur, ostirala, Iortia kultur etxean entseguak egingen dituzte eta Dantzaz konpainiako dantzariak ikusteko aukera izanen dute. Ordu bateko lau entsegu egin ditu talde bakoitzak.

Arte eszenikoetara eta dantza hurbiltzea da dantza erresidentziaren helburuetako bat. Horregatik, bai dantza erresidentzia bai institutuan egiten ari den antzerki tailerra, "beste ikuspuntu batetik egiten dira, aisialditik". Gainera, irakasleak gazteak dira, eta ikasleekin hurbiltasuna eta gertutasuna lortzen dute. "Parekide sentitzen dira". Hortaz, konpainiaren zuzendariak azaldu duenez, dantza erresidentziaren helburua ez da dantza egiten dutenak hobetzea, baizik eta guztiak batera, modu naturalean, dantzatzea eta mugitzea.



Irati del Valle aktorea 'Amapola' antzezlanean. LILURA TEATRO

Antzerkia kontatu behar diren istorioak plazaratzeko

'Amapola' antzezlan mustuko du gaur Elur Olabide altsasuarrak Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:00etan

ALTSASU

Antzerkiak harrapatu zuen, eta ordutik antzerkigilea da Elur Olabide altsasuarra. Aktore ikasketak amaitu zituen aurreko ikasturtean, baina antzerkiaren edozein lan egiteko prest dago. Hortaz, zuzendari laguntzaile bezala *Amapola* antzezlan mustuko du gaur, ostirala, Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:00etan. Zuzendaria ere izan da.

Zuzendariaren lana "margotzea bezala" da: "mihise zuri bat duzu, kasu honetan, testua ez da zuria, baina horri bizia eman behar diozu. Testu horretatik emozioak,

koloreak eta dena atera behar zaio. Hortaz, aktoreekin zuzeneko lana egiten du zuzendariak.

Gaur estreinatuko dute *Amapola* antzezlan. Marina Pine-daren istorioa kontatzen du. "Kontatu beharreko istorio bat da". Bakarriketa bat da. "Batzuetan bakarriketak oso luzeak egon ohi dira, eta beste zerbait eskatzen zuen": musika eta dantza. Hortaz, istorio gogorrari beste kutsu bat ematea lortu dute. "Protagonistaren haurtzaroa kontatzen dugu, eta momentu horiek ez dira gogorrak".

Osoa: www.guaixe.eus

TXIRINBULO HAUR ESKOLA

2017, 2018 eta 2019. urteetan jaiotako haurrentzat
7, 6 eta 4 ordutako egonaldia
Jantoki zerbitzuarekin
Tarifen jeitsiera
Ordaintzeko tarifa (errenta aitorenaren arabera)

PREMATRIKULA Martxoaren 1etik 15era
9:00-16:00

948 564 422 txirinbulohaureskola@altsasu.net
Altzania kalea 24 ALTSASU
Jarrai gaitzazu Facebook-en.



**ZATOK
ESKOLA
EZAGUTZERA!**

ATE IREKIAK
Otsailak 27
17:00
Altsasun
Altzania Kalea 24

"Jendeak Stock-ak egitea eskatzen digu"

Stock Azoka eginen dute Sakanako Dendari eta Ostalarien elkarteko kideek asteburuan, Altsasun. Ainhoa Alvarez Diez de Arkaia elkarteko kideak komertzioen azoka erraldoia baino zerbait gehiago badela azaldu du

E. Carreño - E. Ruiz ALTSASU

1 Bihar hasiko da Stock Azoka, dena prest?

Dena prest. Gure kasuan betaurrekoak eramango ditugu eta dena kutxetan prest dugu aste-buru honetan izango da eta.

2 Sakana mailako komertzioek antolatzen duzuen hirugarren Stock Azoka izango da.

Hirugarren urtez Sakanako dendari eta ostalari bezala, bai. Lehen Altsasuko dendariak bakarrik egiten genuen, baina orain dela hiru urte Sakanako dendariak eta ostalariak elkartu ginen.

3 Zenbat komertzio osatzen duzue elkarrea?

Orain 54 komertzio gara eta orain egiten dugu denak batera. Sakanako dendari eta ostalari guztiek parte hartzen dugu, edo, bueno, nahi duenak.

4 Urteroko balorazioa positiboa delako, ez?

Arrakastatsuak izaten dira. Niretako bosgarren urtea izango da. Eta oso gustura egoten naiz. Jendeak eskatzen du eta komertzioak kalera ateratzeko modu bat da.



Ainhoa Alvarez Sakanako Dendarien eta Ostalarien elkarteko kidea.

5 Nola erabakitzen duzue nor egon?

Nahi duenak. Egia da komertzio asko garela, 54, eta tabernariak daude ere. Orduan, komertzio motaren arabera ez da erraza stock azoka batean parte hartzea, edo taberna baterako ere ez da erraza. Dena dela, stock-a egiteko batzuk elkartzen gara, baina gero beste gauza batzuetan beste batzuek parte hartzen dute.

6 Urtean zehar egitasmo gehiago dituzue prest.

Udaberrian egin ohi duguna, azarokotea, pintxopotea... Orduan, bakoitzak aukeratzen du eta egin dezake nahi duena eta hobe datorkiona.

7 Stock azokak produktu zaharrak erakusteko balio du edo berria ere egongo da?

Stock Azoka bezala mantentzen dugu. Bi urte hauetan saldu ez dena atera egiten dugu. Baina, adibidez, nik denda txikia dudanez, gauza berriak eramaten ditut Stock-era prezio onean edo deskontu batekin.

8 Komertzio batzuek bere lana nola egiten duten erakusten dute?

Bai. Badugu ile-apaindegi bat, altzariak eta horiek bai erakusketa egiten dutela. Dena ez da Stock izango. Gauza berriak egongo dira, erakusketak... Dendak kalera ateratzeko modu bat da. Dendaren arabera gauza bat edo bestea egiten du. Arropa dendek, agian, stock gehiago egiten dute, baina denetarik dago: liburu-dendak, ile-apaindegiak, altzari dendak, optika, zapata-dendak...

9 Stock Azokan egunerokoan jendearekiko sortzen den harreman estuagoa edota gerturagoa da?

Oso sentsazio polita da. Denak elkartzen gara, komertzio guztiak batera gaude, eta gure artean ere tratu handiagoa egiten dugu. Jendearen kasuan betaurreko batzuk erosten ditu, gero zapata batzuk, kamiseta bat eta arkatx bat. Orduan, gertu dauka guztia. Egia da jende gehiena ezaguna dela, baina gertutasun handia ematen dugu. Oso egun politak izaten dira. Bai guretako, bai jendearendako.

10 Nolakoa da Sakanako komertzioen osasuna?

Gauzak ez dira errazak. Konpetentzia handia daukagu, merkataritza gune handi hauekin ere bai, baina nire ustez krisi handiagoak izan ditugu. Aurreko urteko balorazioa oso positiboa izan zen. Baina honi aurre egin behar diogu. Herri txikietan dendak ixten dira. Hala ere, Sakanako jendea Sakanan gelditzen da eta horrek aukera handia ematen digu eta positiboa da. Beraz, balorazioak egin behar ditugu zer gauza falta diren eta zer gauzetan hobetzea daukagun jakiteko.

11 Jendea Stock-era joateko animatzen duzu.

Jende guztia animatzen dut. Denetarik egongo da. Asteburua egongo gara eta Altsasutik bueltatxo bat ematera animatzen dut jendea. Larunbatean, bihar, 10:00etatik 21:00etara eta etzi, igandean, 11:00etatik 15:00etara egongo gara. Giro polita egongo da.



**DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA**

DISEINU GRAFIKOA ETA ILUSTRAZIOA: LOGOTIPOAK, KARTELAK, TXARTELAK, ESKUORRIAK.
EDITORIALA: LIBURUAK, BOLETINAK, ALDIZKARIAK, KATALOGOAK.
MARKETING DIGITALA: WEB ORRIAK, SARE SOZIALEN KUDEAKETA.
ITZULPENAK.
EDUKIEN SORMENA, ERREDAKZIO LANAK.